

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1992ko azaroak 27

172. zenb.

Udalaizpea  
meategia ote?

# Krisia

Sei ikuspegi

GUÍA PRÁCTICA DE  
FRIGORÍFICOS

## Larrea (Uribarri)

U rte honen hasieran Udala plazan desagertu zan kale basarrixe. Larrea izenez ezautue izen da, bertakuek Larrea apellidue daukielako.

1925ien jaso zan etxiau. 1934en Laureano Larreak erosi euen. Araiako semie zan eta Galarragako Madalena Saez de Adanarekin ezkondu.

Laureano Elmara lanien etorri zan eta lelengoko urtiek Eskoitzan bota zittuen, Mundrauera etorri arte.

Saso hartan Larrea inguruek ez eukien gaur ikusten dienakin zeikus haundirik; zelai, solo eta basarri ingurute euen: Munarrena, Erguin, Uriburu, Bolero, Usetxe, Gorostiza, Olan...

Larragain aldien, etxetik



150 metrotara, gaurko Kalealdean, kantera bat euen. Zerrajerie eitteko hortik atara zan materixala.

Bigarren generazinuen etxera Emili ezkondu zan, Elorrieta auzoko Aierdi ba-

sarriko Joxe Murgiondorekin.

Joxek automobilek konponketako garajie euki euen Muxibar taberna onduen.

Hiru seme izen zittuen: Joxe Inazio, Jesus Mari eta

Juakin. Lora, arrautze eta ortuko jenero asko salduetekuek die, bai etxetik bertatik eta baitte plazatik be.

Oin Uribarriko Goiru basarrixen bizi die.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

## Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



# Ekologia eztabaidagai

ndustrigintzak kezka eta egonezin handia sortu du gizateriaren etorkizunaz. Luzaroan gizarteari ezkutatu egin zaizkio arazoak, eta honetarako berdin izan dira ukiezina zen kapitalismoaren berekoikeria eta liberalismoa gauditua nahi omen zuen ideologiaren babespean egindako astakeria beldurgarriak.

Basakeriak hain handiak izan direnez eta oraindik direnez, behar-beharrezkoa da hondamendi ekologikoari muga jartzea bi sistemetan, oinarritzko helburua baita planeta hau gizakiarentzat bizigarri bihurtzea.

Benetan padoxikoa eta kontraesankorra da gizateriaren norabidea, aurrerapenaren izenean, zentzugabeki eta atzeraka baitabil gai honetan.

Bidegurutze historikoan daude aginte politikoa eta gizarte zibila: teknologiaren ahalmena mugatu eta duen indarrari eutsi beharra dago naturaren exigentzien aurrean. Baina hau gizateria osoak egin behar du elkarrekintza edo harreman estuan. Hil ala biziko kontua da, eta honetarako apurtu beharra dago ideologia estuegiekin eta interes primarioekin, betiere munduak bizirik iraun ahal izateko.

Gerorako bizigarritasunaren kostua enpresek beren ustiapen edo esplotazio-kontuan sartu beharreko beste kostu bat da. Baina ahaltsuen tenta-

ziorik okerrena hau da: beste batzuen ahu-leria edo morrontza politikoaz baliatuz, arazo ekologikoak beste horienengana —Hegoalde- ra edo Mexikoko mugetara— pasatzea, honela benetan konponduko balitz bezala industria kutsatzaileen arazoak.

Merkatuak, berezko izaeraz, natura menperatu eta hondatzeko joera du, nahiz eta natura zaintzea funtsezkoa izan planetaren bizitarako.

Baliteke abstraktuan eta teorian denok bat etortzea natura babestu beharraz, baina Jainkoari eta deabruari gertatu zitzaizen bezala —alegia, xehetasunetan haserretu zirela—, gauza bera gertatzen da eguneroko bizitzan eta praktikan. **Merkatuaren interesak** nagusitu egiten dira **naturaren interesen** gainetik. Horregatik du Administra-

zio Publikoak naturaren interesak zorrozt zaintzeko ardura garrrantzizkoa.

Halere, baliteke Administrazioa esku hutsik aurkitzea **Arauek** falta direlako edo kontrol-funtzio hau beteko duen erakunderik ez dagoelako. Honetaz esan behar da Europar dexenteko aurrerapena ari dela gertatzen direktiba eta arautegi berrieekin, eta hauek derrigorrez bete beharrekoak direla Europako Elkarte osoan. Berauek adierazten diete gure udalei nondik nora jokatu behar duten eta zer bete eta betearazi behar duten, eta ezin dugu ahaztu udalek erantzukizun handia dutela **planetaren** geroa zaintzen.

**JESUS LARRAÑAGA**  
(Erredakzioan itzulia)




PAXKU

## LORATEGI taberna

Iturriotz, 7  
Tfnoa: 79 04 67  
ARRASATE

# Memesa

## 79 42 22



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

### • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Carmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Anton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maitte Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba



**ZENBAKI**  
Aholkularitza

**Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80

**MUSAKOLA**  
**OSTATUA**

**Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE

•••••  
**Zer da AED?**

**E**guneroko bizian ez da askotan gertaera bitxi eta pozgarririk sortzen, errealak zortzi bat gol sartu dituen egunetan ezik jakina!, baina tira, ez dira horiek dozenan hamahiru izaten.

Lehengo egunean izandako pasarte bat buruan dut oraindik. Kasualitatez zazpi bat urteko hiru umerekin suertatu nintzen mahai baten inguruan. Umeok guraso erdaldunak zituzten eta oraindik euskaraz baino erderaz erreztasun handiagoa somatzen zitzairen. Zer egingo eta letradun dadoak bota eta hitzak osotzen jolasteari ekin genion. Jokoiari grazia apurtxo bat jartzeko euskaraz egiten saiatuko ginela hitz eman genion alkarri. Han hasi ginen bota nik eta bota zuk. Dadoak bota eta berbarik bilatzen ez zutela ikustean begira jartzen zitzaizkidan ea lagunduko ote nien adieraziz. Halako baten dadoak mahaiaren zeudela neroni ere berbarik asmatu ezinean nengoan. Minuturen bat itxoin eta gero nik jada "sopitas" emanak neuzkala, ume batek hiru hizki bilatu eta alkarren ondoan jarri zituen. AED. Oraindik harrিতuta nengoela, laster galdetu nion ea zer zen berarentzat AED hori. Mutikoak irriparre eginez zera esan zidan: "AED hori, eskursiño bat da". Neure artean esan nuen: "zein erantzun tontoa eta zein erantzun inteligentea". Gero, zer esan gura ete zuen interpretazio bila pentsatzen hasi nintzen.

"Zergatik esan ete du hori, AEDk bizi diren erdal mundutik euskal mundura eramaten dituelako akaso? Eskurtsiotan ondo pasatzen dutelako eta AEDn ere ondo pasatzen dutelako analogiaz?" Edozela be, eskursiño horretan euskaraz ondo pasatzen dute umeok eta hori ez da gutxi, nagusi batzuk botaka egingo ete duten beldur badira ere. Txofer onak ditugu, aupa Joanito!!

I. I. I.

•••••  
**Gauzak diren bezala**

**K**aixo!  
ATBn Larrugorritan programa bukatu berri dugu. Balantzea, guztiz positiboa izan da, hala ere, tamalez, badaukagu komentatu beharreko zerbait.

Programa batzutan, elkarriketa osoan gezurrak esaten zituen "gezurtero" bat ekartzen genuen. Programaren azken minutuetan "gezurteroa" nor zen argitu eta bere benetako iritzia ematen zuen.

Nolabait, erreguka ibili ondoren, lortu genituen programa arriskutsuenetan gezurtero bezala jokatu zutenak: bata "fatxa" moduan soldaduskari buruzko programan eta bestea matxista moduan "sexu ezberdinketan". Badakigu ez geniela gauza errazik eskatu. Orain,

Arrasateko mokoluze batzuk defendaturiko papera aurpegi botatzen diete. Ez al dira konturatzen gezurtero moduan ari zirela hitzegiten? Eta gezurterok izango ez balira ere, ez al dute beraien iritzia emateko eskubiderik? *Larrugorritan* bezalako programak iritzi ezberdinen gainean eraikitzen dira. Guk ere aurkitu ditugu gureekin inola era bat ez zetozen iritziak eta errespetatu egin ditugu kaikuontzi hauen legea alde batera utziz ("Nire taldekoa ala etsaia"). Ez ditugu hone-lako jokaerak ulertzen (ulertezinak direlako).

Besterik gabe, mila esker, batez ere gonbidatu guztioi. Izugarri sentitzen dugu "martintzar" hauetariko batekin topo egin baduzue, kasurik pezu.

**BETIRITZE, AITOR ETA UNAI**

•••••  
**Monterronetik kanpora**

**K**aixo!  
Ohiturari jarraituz liburutegira joan ginen, eta, bertan geundela, Tomasek, 6 hilebeterako bota gintuen arrazoi gabe. Beste batzuk berriz, Monterronetik kanpo zeudela eta aurretik botatakoekin zeudela, 6 hilebeterako bota zituzten arrazoi gabe.

**URKO NARBAIZA ETA 12  
SINADURA GEHIAGO**

**LAURA**  
**GAZTE MODA**

Erdiko kale, 30  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 57 20

**beatriz**  
**oinetakoak eta poltsak**

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 3  
ARRASATE

**ARRASATE  
PRESS  
HARPIDETZAK**



**77 05 65**

# Zer irizten diozu bosniarrak ekartzeari?



**Antonio Orellana  
Langabetua (26 urte)**

Ondo iruditzen zait, eta ahal izanez gero lagunduko nieke, baina ezin dut. Bestetik ezin diet eskaini eta ikusten badituz behintzat agurra emango diet.



**Arantxa Mondragon  
Langabetua (24 urte)**

Niretzat oso ona, eta ahal dudan gauzetan laguntzeko asmoa daukat, erropetan, dirutan...



**Goio Layana  
Langabetua (28 urte)**

Oso ondo iruditzen zait eta hango egoera penagarria dela uste dut. Edozer gauza egingo nuke laguntzeko, erropak prestatu ditut hara bidaltzeko, baina penagarria da laguntza behar bezala emateko aukerarik ez izatea.



**Begoña Gonzalez  
UBiko ikaslea (18 urte)**

Ondo iruditzen zait, bestetik ez bada, hango roilotik zerbait aldentzeko. Lagunduko diet, ahal izanez gero, noski.



**Mari Carmen Garcia  
Daglas Bideo klubeko  
langilea (36 urte)**

Etorri behar badira etor daitezela, guk ere eskertuko genuke edozein laguntza baldintza horietan eta berriantzat irtenbide onena izan daiteke.



**Luis Cabero  
Fagor Radarreko  
langilea (29 urte)**

Ez dakit irtenbiderik onena den ala ez, baina zerbaitean laguntzen badie ondo dagoela iruditzen zait, ikusi egin behar zer gehiago egin daitekeen euren alde.



**Lali Milan  
Etxekoandrea (31 urte)**

Ondo etorriko zaie denbora bat handik kanpo egotea. Lagunduko diet, beharra duenari laguntzen beti ahalegintzen naiz eta.



**Daniel San Jeronimo  
Jubilatua (60 urte)**

Orain izan daiteke, baina lehen ez. Gerran sartu aurretik eman behar zitzaizien laguntza; hala ere, badaukatu erropa uzteko asmoa.



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA

**perma glaze®**

**Konponketarik gabeko berrigintza  
6 ORDUTAN BAINU BERRIA!!!  
Garantia osoa eta ekonomikoa  
Tfnoa: 81 38 14**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Eritetxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Iguatorialdea .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
.....	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio (945) .....	45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
<b>Udaltzaingoa</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 72
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78
<b>Garraloak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Monterongo liburategia</b>	
Monterron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

<b>Ostirala 27</b>	
Egunez: Amezua, Santamaina.	
Gauetz: Amezua, Santamaina.	
<b>Larunbata 28</b>	
Egunez: Aurora Ruiz, Maala.	
Gauetz: Aurora Ruiz, Maala.	
<b>Igandea 29</b>	
Egunez: A. M. Morales, San Andres.	
Gauetz: A. M. Morales, San Andres.	
<b>Astelehena 30</b>	
Egunez: Alberto Azkoaga, Ferrerías.	
Gauetz: Alberto Azkoaga, Ferrerías.	
<b>Asteartea 1</b>	
Egunez: S. España, Iturrioz.	
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.	
<b>Asteazkena 2</b>	
Egunez: M. Corcuera, Musakola.	
Gauetz: Camacho, Oxirondo.	
<b>Osteguna 3</b>	
Egunez: J.A. Irizar.	
Gauetz: Puy, Barrenkale.	

**27 OSTIRALA**

**ZINEA**

"Corazón Trueno" (7,9.30)

**EUSKARARI BURUZKO MAHAINGURUA**

Zergatik eta zertarako euskaldun?. Mahaingurua. Partaideak: Joseba Arregi, Jexus Mari Mujika, Beñat Oihartzabal, Paulo Iztueta eta Itziar Idiazabal. Arratsaldeko 7etan. Monterronen.

**MODA DESFILEA**

Moda desfilea. San Viatorren. Arratsaldeko 7etan. Sarrera: 350 PTA.

**IZOZKETEI BURUZKO HITZALDIA**

Mendiko izozketei buruzko hitzaldia. Emalea: Ricardo Arregi. Aretxabaletako Zairaia zinean. Gaueko 10etan.

**28 LARUNBATA**

**ZINEA**

"Lunas de hiel" (5,7,9.30)  
52ko KINTOEN EGUNA

1931an jaiotako kintoen jai eguna. Arrasateko Parrokian meza eta Casinoan bazkaria.

**GAZTAINA ETA SAGARDO DASTAKETA**

Gaztaina erre eta sagardo dastaketa. AEDko gazte sailak antolatuta. Arratsaldeko 6etan. Arrasateko Herriko Plazan.

**GOIKOBALUREN KONTZERTUA**

Goikobalu eta Conento Musical taldearen kontzertua. Parrokian. Arratsaldeko 8etan.

**S.O.S. BALKANES**

• S.O.S. Balkanesek antolatutako kontzertua. Donostiako Santa Marina basilikan. Arratsaldeko 6etan. Jaialdia. Anoetako Polikiroldegian, gaueko 9.30etan.

**29 IGANDEA**

**ZINEA**

"Lunas de hiel" (5,7,9.30)

**MENDI IRTEERA**

Toloñorako mendi irteera. Murruxiko elkarteak antolatuta. Irteera: 8etan Aretxabaletako Partenoitik.



**S.O.S. BALKANESEN JAIALDIAK**

S.O.S. Balcanes elkarteak, Kroaziako gerran kaltetuei laguntza bidali nahian, plastikoaren kanpaina jarri du martxan. Hori dela eta, dirua biltzeko bi jaialdia antolatu ditu, lehena Donostiako Santa Maria basilikan. Bertan parte hartuko duten abesbatzak, Hondarribiako Eskifaia, Tolosako Hodeiertz, Ordiziako Oroith eta Donostiako San Inazio izango dira. Arratsaldeko 6etan hasiko da jaialdia eta sarrera doan. Eta bigarrena, egun berean gaueko 9.30etan Anoetako Polikiroldegian. Bertan Mikel Markez, Sorotan Bele, Egan, Tapia eta Leturia, Kepa Junkera, Ganbara eta bertsolari eta txiste kontalariak hartuko dute parte. Azken honetara joateko 1.000 pezetako sarrera ordaindu beharko da.

**HIESAREN EGUNA**  
Datorren asteartean HIESaren eguna ospatuko da eta Arrasaten arratsaldeko 5etan hasiko dira ekintzak. Izan ere, ordu horretan mahai informatiboak jarriko dira Sebero Enparantzan. 7ak bitartean, berriz, txalaparta, danborreroak, gaiteroak eta trikitilariak izango dira. Arratsalde partean ere Lore Gazteak taldearen emanaldia, Arrasateko erraldoi eta buruhandiak eta giza-katea izango da. Gaueko 9ak aldera bertsolariak izango dira eta ondoren herri afaria. Afaltzera joan nahi duten guztiak Jaizalen eman dezakete izena edo HIES Ekimeneko telefonora deituz: 79 26 99.

**30 ASTELEHENA****ZINEA**

"Lunas de hiel" (7,9.30)

**KOMIKI LEHIAKETARAKO AZKEN EGUNA**

Komiki lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna. Prebentzio eta Gazteria Bulegoan.

**"KOADRO BATEN ZERTZELADAK"**

"Koadro baten zertzeladak" erakusketa ikusteko azken eguna. Monterronen.

**HIESa HITZALDIA**

HIESaren aspektu nagusiekin buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 7etan. Bergarako Gaztetxean.

**ALKOHOLARI BURUZKO HITZALDIA**

"Alkoholari buruzko arazoak eta haren ingurunea" gaiari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Angel Vega. Monterronen. arratsaldeko 7etan.

**1 ASTEARTEA****ZINEA**

"Lunas de hiel" (7, 9.30)

**HIESAREN EGUNA**

HIESaren eguna.

**ARRASATEKO TOPONIMIARI BURUZKO HITZALDIA**

Arrasateko toponimiari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Jose Luis Ormaetxea. Monterronen. Arratsaldeko 6etan.

**ALKOHOLARI BURUZKO HITZALDIA**

"Alkohola Gizartean" hitzaldia. Hizlaria: Jeronimo Garcia. Monterronen. Arratsaldeko 7etan.

**2 ASTEAZKENA****HIESAREN HITZALDIA**

Sexualitatea eta HIESari buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 7etan. Bergarako Gaztetxean.

**DROGARI BURUZKO HITZALDIA**

"Kokaina eta bere funtzioa gizarartean" hitzaldia. Hizlaria: Lourdes Ortigos. Monterronen. Arratsaldeko 7etan.

**3 OSTEGUNA****HIESAREN HITZALDIA**


HIESaren oraina eta geroari buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 7etan. Bergarako Gaztetxean.

**DROGARI BURUZKO HITZALDIA**

"Drogamenpekotasunaren arazoak eta haren ingurua" hitzaldia. Monterronen. Arratsaldeko 7etan.

**GIZABIDEA SARI BANAKETA**

Jose Mari Arizmendiarietaren oroimenezko ekitaldia. Arratsaldeko 3.30etan. Arrasateko Eskola Politeknikoan.


**UEU-REN IHARDUNALDIAK**

Udako euskal unibertsitateak antolatu dituen ihardunaldien barruan, datorren asteartean, hilak 1, Arrasateko Toponimia edo izen-izanaren sintoniari buruzko hitzaldia izango da. Bertan Jose Luis Ormaetxea "Txipi" k leku-izenen bilketa lana nola egin den azalduko da: helburuak, metodologia, normalizazioa, arazoak... Bestalde, aipatzekoa da datorren hilaren 10ean egingo den Pirinioetako hartzari buruzko hitzaldiarekin bukatuko direla ekintzak.

**DROGARI BURUZKO ASTEA**

Arrasateko Lizarra Elkarateak drogari buruzko astea antolatu du. Datorren astean buru-

tuko da eta Arrasateko herria sentsibilizatzea da helburua. Datorren astelehentik aurrera lau hitzaldi izango dira. Astelehenean eta asteartean alkoholaren arazoa aztertuko da eta asteazkena eta ostegunean beste drogei buruz. Hizlariak gaian adituak izango dira: psikologoak, Gizakia Helburutik pasatu dena eta drogomenpekotasunean aditua. Hitzaldi guztiak 7etan izango dira, Monterronen.

**JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETAREN OMENEZKO EKITALDIA**

Abenduaren 3an, osteguna, Jose Arizmendiarietaren omenez ekitaldi akademikoa burutuko da. Aurten Dionisio Aranzadi Deustuko Unibertsitateko errektore ohia izango da hizlari. Kooperatiben esperientziak. Bestalde, ekitaldi akademikoan zehar, literatura lehiaketako



epaimahaiaren erabakia jakinaraziko da.

“Gobernuan dauden partiduko mutil hauek ez dute erremediorik, ideario sozialistaren zati handi bati pragmatikoki uko egin badiote ere, berriketa errezakoak direnez, diskurtsoetan oraindik ere ihes egiten die ‘babesik gutxienekoen’ kontu horrek. (...) Badaiteke agintari horietako batzuk oraindik ere arima banderaz beterik izatea, eta noizean behin betiko topiko tipikoak ihes egitea. Baina politika ekonomikoan, atzeko zulotik lekutik pasatzen dituzte eurek sortutako espektatibak.

Hurrengo hauteskunde-burrukan, ‘hiritarren lehiatilara’ jo beharra izaten dutenean, trukean txanpon bera hartuko dutela espero dut. Hau da, botua komuneko paperean”.

**Mariano Alvarez** 1992-11-17

**EL MUNDO**  
PAIS VASCO

“Lasarteko bizilagunek beren herriko dokumenturik garrantzitsuena euskaraz izango dute aurren, epaile baten aginduz elebitasun gogor defenditzen duen alderdiak, PSOEek, zuzentzen duen Udalak herriko aurrekontuak gaztelaratik euskarara itzuli behar izango baititu. (...) Baina eskubideak bete beharrekin ez datoz bat, izan ere euskaldunek, harremak euskaraz izateko eskubidea izan arren, beste askoren obligazio ezarekin egiten dute topo. (...)


Euskaldunek aspaldi ikasi genuen dohainik ezer ez zaigula emango, eta bitartean Lasartekoa bezalako berria pozik jasoko dugun arren, gure borroka gogorrean urratsa hau txikia bezain pozgarria besterik ez dela garbi izango dugu.”

**Bego Zubia** 1992-11-18

**egin**

## **Euskararen legeak 10 urte. Ze balorazio egingo zenuke?**

**E**z da erraza esaten zeintzu izan diren Euskararen legearen muga eta lorpenak. Oroar, zerbitzu publiko nahiz instituzioetan oraindik legez kanpo gaudela ematen du. Egungo legea Euskararen mesederako hobetzeko non ote dagoen kaxa izango da kontua. Legeak beti bi kezka nagusi sortu ditu: bata, gainetik salto eginez gero zer gertatuko ote zaigun beldurra, eta bestea berriz, harmailaraino ezin iritsika gabiltzan gehiengoaren axolagabekeria. Lehengo kezka ezagutzat inorantziaren kontrako ezagutza berriak dira botika bikaina. Bigarrenari buruz esan behar da, legea aldagarria dela eta borondatea ere bai. Borondateak legea aldatzen du baina legeak borondatea aldatzeko besteko indarra badu, borondatez makaltxo gabiltzan seinale da. Euskaldun izateko borondateak edo askotan entzuten den kontzientzia linguistikoak eramango du aurrerago errealitatea, ohitura bihurtu eta legearen hobetzea. Kontzientzia linguistikoak koherentzia eta ardura eskatzen du eta horretaz gutxi dakite euskalduntzeko iladan beren burua azkenengo ikusten dutenek, zein legeak zer aldatuko digun begira daudenek. Legeak ez du ez hiztunaren gogorik eta ezta bere euskararen ezagutzarik kontutan hartzen. Horiek egokitzea norbanako eta herrietako euskara taldeen lana dira besteak beste. Lagun batek zioena: zer da garrantzitsuagoa, maitasuna ala dirua? Maitasuna jakina! Diruak lagundu egiten du. Hori da legea.



**Jon Iñaki Izarzelai**  
*Adorez eta Atseginuz*  
Mintegikoa



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



**Lehergailua Hispano-amerikanoaren aurka**

Joan den asteko asteazkenetik larunbatera bitarteko gauerdian, 12.30ak aldera, kanping-gas bonbona batek eta gasolina ontzi batek osatutako lehergailuaren ondorioz sute txiki bat sortu zen Hispanoan. Gasolinak su hartu zuen, baina bonbona ez zen leheritu.



**Juanito Arzamendi omentzeko kontzertuan eliza jendez gainezka**

Larunbat arratsaldean, 8.30etatik aurrera Arrasate Musikaleko hogeigarren urteurreneko kontzertua entzun ahal izan zen Parrokian. Eliza jendez beteta agertu zen, kontzertuaz gain, Juanito Arzamendiri, hasiera hasieratik Akademiako arduradun izan denari, omenaldi txiki bat eskaini nahi zitzaion eta. Juanitok, sari-gisa erretilu bat eta batuta jaso zituen, baina beharbada inportanteagoak izan ziren entzuleek eskainitako txaloak. Bere erretiroan, behar bezalako agurra musikaren alde hainbeste lan egin duen arrasatear honi.

zutenak pozik agertu ziren ateratako diruarengatik.

**Erdiko Kaleko itxura aldaketa**

Udalak Erdiko Kaleko etxaurreak eraberritzeko, Portaloitik Udaletxeraino, 29 milioitako aurrekontua prestatu du. Dirutza horren erdia Foru Aldundiak ordainduko luke, beste erdia, berriz, etxaurreen neurrien arabera, Erdiko Kaleko bizilagunek. Badirudi orain arte obra egiteko interesa bi enpresek erakutsi dutela, Cnes. Brues eta Pinturas Bergarak.

zuen eta *Malaña* taldeak bere betiko maila erakutsi zuen.

Kontzertuaren hasiera, printzipioz gaueko 10etarako zegoen iragarrita, baina ez zen 11ak arte hasi eta goizeko 4ak baziren bukatu zenerako. Horrekin eta tabernan zeuden edari guztiak gastatu zirela esatearekin, argi dago giroa beroa izan zela.

**Igandean sutea Munar kalean**

Pasa den igande arratsaldean, bostetan gutxi gorabehera, sute txiki bat sortu zen Munar kaleko hamargarren zenbakiko bigarren pisuan. Dirudienek, elektratresnaren batek sortutako sutea izan zen. Zorionez, ez zen ezer gertatu, baina susto ederra bai, Leske zihola etxeokandreak nahi barik atea itxi zuen eta ume txiki bat barruan geratu zitzaion eta.

**Kiroldegia bete intsumisioaren alde**

Kakitizat talde antimilitaristak eta Gaztetxekoek antolatutako kontzertuan, La Polla Records, Malaña eta Reincidentes taldeak izan ziren Musakolako kiroldegian. Guztira 1.200 pertsona hurbildu ziren kontzertu hori ikustera, 720.000 PTA sarreretan ateratakoak. Ikusleek, *Malaña* eta *La Polla Records*-ekin gozatu ahal izan zuten, baina *Reincidentes* taldearekin gehiegi ez, Sevillarrek soinu arazoak izan zituzten eta. *La Polla Records*-k bere azken diskoaren errepasoa egin

**JAIOTZAK**

- Josu Aperribai Barrigon. Azaroaren 14ean.
- Garazi Madina Martinez de Arenaza. 20an.
- Ane Agirre Uribealzo. 21ean.

**HILDAKOAK**

- Jesus Maria Elorza Jauregi. Azaroaren 17an. 55 urte.
- Juan Azkarate Basabe. 18an. 57 urte.
- Jose Etxagibel Otadui. 18an. 75 urte.
- Josefa Mateos Romero. 20an. 83 urte.
- Natalio Ayucar Vicente. 22an. 74 urte.
- Paula Yarza Maiztegi. 22an. 74 urte.

**TXOKO  
TABERNA**

*Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak*

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

*ESLU*

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



DOMI KORTA \*

## Zergatik HIESaren mundu mailako eguna?

**HIESaren** mundu mailako egunaren ideia HIESaren Prebentziorako Programei buruz Osasun Ministrariak egindako Konferentziatik sortu zen, 1988ko urtarrilean Londresen. Bertan, ehun eta berrogei herrialde baino gehiagotako ordezkariak ahobatez, HIESari buruzko komunikazio urtea deklaratu zuten 1988a.

OMSak ihardura hori urte bereko abenduaren lehen HIESaren Mundu Mailako egunarekin amaitzea proposatu zuen eta Munduko Osasunaren Asanbladak bere baietza eman zion (1988ko maiatzean). Erakunde horretako Zuzendari Orokorrak, Hiroshi Nakajimak, honela definitu zuen Mundu mailako eguna: "Muga guztiak zeharkatuz herri guztiak bat egiten dituen gertaera da,

elkar ulertze eta solidaritate izpirituaz. HIESaren aurka baturik dagoen mundua". Ondoren, ekimen horri bere oneritzia eman zion Nazio Batuen Batzar Orokorrak.

Ospakizun hau instituzionalizatzerakoan OMSa izan zituen helburuak honako hauek izan ziren:

- VIH birusaren transmisio bidez jendeari informazioa ematea
- Prebentziorako ekintza eta aktibitateak indartzea

.....

*"Egun hori, kaltetuenganako solidaritatea indartzeko ekitaldia da"*

• HIESak jota dauden pertsonenganako errespetua eta arreta bultzatzea.

Egun hori, kaltetuenganako solidaritatea indartzeko ekitalditzat pentsatu zen, ezagupena eta ekintza bitarteko hartuta.

1988tik, egun horretarako lema aukeratzen du OMSk urtero, mundu guztian gogoan izateko, garrantzi berezikotzat jotzen dituen aspektuak azpimarratuz beti. "HIESa eta gazteak" izan zen lehena (1988). Hurrengo urteetan egun horretarako erabili zirenak honako hauek izan ziren: "Batu ditzagun gure indarrak" (1989); "HIESa eta emakumea" (1990); "Erronka konpartitu" (1991); Aurtengoa, abenduaren lehen burutuko den egunarena "HIESa, denon konpromezua" izango da.

Azken finean, denoi eragiten digun arazo bati buruz atentzioa ematea da helburua.

(\*) HIES EKIMENAKO PARTAIDEA (Erredakzioan itzulita)

## USTEAK USTE

### EZ JOKATU LOTERIXE!

Gabonak gainean dira, eta horren inguruko bonbardeo guztia inguruan, dagoeneko. Horrekin batera, krisia, pezeta gaixoaren argaltze soluzio gabea, orokorrean dagoen giro etsipendu eta goibela dabil ahoz aho.

Egoera tristeagoan, gerra eta negu hotzari aurre egin ezinik daudenaz ere akordatzen gara baina, lasai, laster pasako da sententzia orokor hori, eta iragarrietako modara jarriko gara, "a- casa-vuelve"ka, nekez itzuliko direnez ahaztuta, akaso.

Erosi, gastatu, jokatu. Horra garaiotan gehien kotizatzen diren berbak. Urte guztian bere zortea nahiko tentatu ez duenak oraintxe du ezinbeteko aukera, urteko loteriarik preziatuenean "arriskatzeko".

Egunotan harrituta geratu naiz telebistako hainbat jostailu iragarkik saldu nahi duena ikusita. Ez jostailua bera bakarrik, prezixamente. Indarkeria, kontsumitzearen premia, besteak baino gutxiago ez izatea, eta, harrigarriena, etorkizunerako geure buruari opa dioguna. Panpin panpoxa baten itxura bereko izatearen loteria jokatu nahi zuen neskatilaren iragarkia ikusi dut gaur. Ez genuen besterik behar!

ARANTZAZU LOIDI

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

## URONDO elektrizitatea

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak




Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

# Gesalibar auzoko arazo nagusia, tokirik eza

**Gesalibar** auzoak badu berezitasunik Arrasateko gainontzeko baserri-auzoekiko, izan ere, baserriak eta gune urbanoa, ospital biak barne, nahastuta bezala daude. "Baserri eta etxebizitzaren artean 55 eraikuntza daude auzoan zioen Maria Angeles Iñurategi, auzo-alkatesak- eta biztanleak, 177 gara. Hori Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleko jendea kontuan hartu barik, baina nik uste dut kontuan hartu behar ditugula. Lau horma artean bizi dira, eta gainera denetarik daukate ospital-barruan, baina jakina, barruan dagoenak beti dauka kanporako joera eta horregatik diot kontuan hartu behar ditugula, auzoan dauden beharrak guztionak dira eta, eurenak eta gureak. Zentzu horretan, gainera, garrantzi handia ematen diot Ospitalarekin harreman ona izateari, horregatik auzoa eta Ospitalaren arteko harremanak esutzen saiatuko gara".

## Tokirik eza, arazo nagusia

Maria Angeles Iñurategiren ustez, baserri-auzoak alde batera utzita bezala egon dira, "auzoetan bizi garenok herritar ez bagina moduan". Arazoak gertutik bizi dituen pertsona baten iritzia izan



Gesalibar auzoan, bakarrik ETB eta TVE ikusten dira, ez ATB eta ezta pribatuak ere.

daiteke, baina ez da Arrasate Presi horrelakorik adierazion lehen auzo-alkatea izan.

Iritziak alde batera, auzoak dituen beharrez hitz egin zuen Maria Angelesekin. "Gesalibarrek gainontzeko auzoek ez duten arazo nagusi bat dauka, tokirik eza. Auzoan ez dago ezertarako tokirik, alde batetik mendia eta bestetik Ospitala baititugu. Ondorioz, umeez ez dute jolasteko tokirik, ezta gazteek kirola egiteko ezer; plaza dagoenik ere ezin daiteke esan, helduek paseatzea nahi izanez gero

errepidera irteten behar izaten dute... beraz, uste dut Udalak zoruaren antolaketa berplanteatu egin beharko lukeela".

Arazo nagusi horretaz gain, gehiago ere badira Gesalibar auzoan: baserrietara daramaten bide guztiak asfaltatu beharra, Urkuluko urik ez izatea baserri guztietan, saneamendua egiteke eta ondorioz erreka zikina egotea; ETB eta TVE bakarrik ikusten direnez telebista seinalea behar bezala jarri beharra, eta Arrasate-Gesalibar tartea egiteko garraioaren falta, Ga-

ragartzan zuten arazo bera.

Egitasmoen artean, Aramaiora daraman errepidea zabaldu eta zati handi batean egingo den espaloia, korroa jasotzeko jarriko diren kutxak, eta auzoko gazteentzat, zer egin izan dezaten, antolatuko diren zeramika eta marrazki ikastaroak. Azkenik, aipagarria da Udala eta auzoko Elkartearen artean sinatutako zeszio kontratuaren ondorioz, auzoko Elkartearen bertan Udalak lokal bat berritzi eta egokitu egin duela.

**MENDI** taberna  
Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiralez  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Etxeetako zaborra biltzeagatik hiruhilabetero 1.125 PTA ordaindu behar dira

## Ur hornidura eta zaborra biltzeko tasetan %6ko igoera

Zaborra ordaintzeko tasak ihardueraren arabera ezartzen dira, beraz, etxe, denda, ostalaritza eta lantegiei ez zaie diru-kopuru bera eskatzen. Etxez-etxeko bilketagatik, hiruhilabetero 1.125 PTA ordaindu behar dira, iaz baino %5,6a gehiago. Merkataritzan, berriz, ordaindu beharrekoa enplegatu-kopuruaren arabera dago eta 2.975 PTAatik 9.875 PTAra artekoa izan daitezke.

Ostalaritzan, merkataritzan bezala, tasak enplegatu kopuruaren arabera ezartzen dira eta 2 enplegatu baino gutxiago dituzten lokalek ordaintzen dituzten 3.900 PTAatik, hamabost baino gutxiago dutenek ordaintzen dituzten 12.400 PTA artekoa da. Industrian,

gauza bera: gutxien 2.975 PTA hiruhilabetero eta gehien, berriz, 22.200. Bataz beste, %6ko igoera iazkoarekin alderatuz gero.

Uraren horniduran ere, tasen igoera %6koa izan da eta etxeetan, merkataritza-ostalaritzan eta industrian ez da berdin kobratzen, gainera kobratzerakoan kontsumo hartzen da kontuan. Tasa merkeena, metro kubikoko 38 PTAkoa da eta garestiena 132 PTAkoa. Ezin ahaztu gainera, sarean lotzeagatik zerbait ordaindu behar dela, lehen aldiz egiteagatik 1.000 PTA eta badagoen lotunean lotzeagatik 500 PTA. Iazko prezioekin alderatuta, %25eko igoera lotzeagatik eskubideetan.

## Zabarte ia hiru aste gose-greban

Jesus Mari Zabartek, Kanariar irletako Salto del Negro espetxean dagoen preso arrasatearrak, dagoneko hemeretzi egun bete ditu gose-greban. Aipatu-tako espetxean dauden zazpi euskal presoek, gose-greba honen bidez gartzelako bizi-baldintzen hobetzea eskatzen dute. Oraingoa, aurtan Zabartek egiten duen hirugarren gose-greba da. Gose-greban daudenei elkartasuna adierazteko, Senideak Elkarrekin egunero enkarteladak egiten ditu Seberon arratsaldeko 7etan.

## Epele-Kanpazar 'Construcciones Mariezcurrena'k egingo du

Foru Aldundiak erabakita, 1.361 milioitako aurrekontuaz Cnes. Mariezcurrena enpresak egingo du Epele eta Kanpazar arteko errepidea. Aukeratutako enpresa izan da aurrekontu merkeena aurkeztu duena, baita obra denbora gutxienean egiteko konpromezua hartu zuena ere, hamahiru hilabete.

### Asteroko eskaintza

Azaroaren 30etik abenduaren 4ra bitartean

**%15eko deskontua ZAPATILATAN**

%10ekoa beste edozein artikulutan



**Uriarte**  
SPORT

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78  
ARRASATE



**Alkoholarekin arazoak dauzkazu?**

**Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!**

**Alkoholiko Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

**Zerbitzuak:**

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrititatea eta hizkun berreziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE



### UXARTE

**Kafetegia, gozotegia**  
**Gauzez irekita!!**  
**JO TA KE!!**

Bañez doktorea, 12  
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**



**77 05 65**

## Ingelesa ahozkatzeko mintegia

Ahizke-Cimek ingelesa ahozkatzen ikasteko mintegia antolatu du. Abenduaren 9tik 11ra luzatuko da eta erdi-go mailan aztertuko da. Prezioa 5.900 pezetakoa da eta ordutegia 2.30etatik 5.30etara izango da.

## Ur eta Zabor- tasak ordaintze- ko epea zabalik

1992. hiruhilabeteko ur eta zabor-tasaren ordainagiriak azaroaren 23tik urtarriaren 10era aurkez daitezke, borondatezko epean ordainduz. Epe hori pasa ondoren ordaindu gabe dauden ordainagiriak, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira.

## Kantu ikastaroa

Trikitixa Eskolak dei bat luzatu nahi die soinu txiki eta panderoa jotzen dutenei. Oharrak dioenez, soinujole eta panderojoleek kantatzen jakin beharko dute, neurri handi batean. Hori dela eta, larunbatero goizeko hamarretan izango diren klaseetara joatea gomendatzen zaie.

Dirudienez, Udalaizpeko harriek, normala baino zinc eta berun gehiago dute.

# Udalaizpean 'blenda' motako mineralaren bila

Barrenatxo izenez ezagutzen zen minaren inguruan, Udalaiz mendiarren azpikaldean, sondeoak egiten ari da Exminesa enpresa. Jakina denez, lehen meatz zahar horretatik burdina ateratzen zuten, baina orain blenda mineralaren bila dabiltza, zinc-ak eta berunak osatzen duten mineralaren bila. Dirudienez, duela hilabete batzuk, Exminesak Barrenatxo inguru horretan muestra batzuk jaso zituzten, eta konturatu ziren lurra normala dena baino zinc eta berun gehiago zuela.

Muestra horiek eskuartean, Exminesak

sondeoak egiteko baimena eskatu zion Udalari eta joan den astean zulatzen hasi zen. Oraingoz, lehen sondeo honetan, zulatze muturrean diamantea duen tresna baten bidez, 200-300 metro zulatuko dituzte. Emaizak onak balira, Exminesak sondeo gehiago egiteko asmoa dauka, eta ikerketek lur azpian dagoena blenda dela eta gainera asko dagoela erakusten badute, posible izango litzateke meatzea ireki nahi izatea.

Gaur egun Exminesak, blenda meatze bat dauka Gabirian eta bertan 176 pertsonak egiten dute lan.



## Parques y Jardines


**Parke eta lorategien  
sorkuntza.**

**Larazaintzako  
mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza  
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)




Mazantini aldizkariaren hirugarren zenbakia, Luis Otáegui, Arrasateko Santa Ageda psikiatrikoan eginiko argazkiekin ilustratu dute. 1976. urtean eginiko argazkiak dira guztiak eta "Euskararen bide ilunaren argitzea", "Collage", "Gerratea Elgoibarren", "Amen balada", "Groenlandia"... testuak ilustratzen ditu.

**Eginek antolatutako 'Mus txapelketa'**

**Arrasaten ere burutu da eta Irati tabernan jokatu zen pasa den aste-bukaeran. Irabazleen izenak badakizkigu jadanik: Rafa eta Grillo. Arrasaten irabaztea erraza izan ez bada, ikusi egin behar Bilboko finalean zer egiten duten.**



Izaskun Heriz-ek 100.000 batekin. Oraindik antzeko pezeta irabazi ditu. Non? Be- hainbat sari daude, beraz, lun tabernan erositako Egun- erosi zure txartela eta beste kariako tonbolaren txartel hainbeste tokatzen zaizun.



Goiko argazkian ikusten dituzuenak, Diego Davila eta Arantza Ormaetxea uztailaren 11 an ezkondu ziren. Zorionak eta urte askotarako!

**"EDERTU"**  
ileapaindegia

San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

**BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK**

**XAHO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

**ARAMAIO**  
okindegia

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

## IZEN PROPIOAK

Argazkian ikusten dituzuen kamarari hauek Londreseko produktora bateko langileak dira. Ekonomia Sozialari buruzko programa batentzat Arrasateko Kooperatiben esperientzia grabatzen ibili ziren pasaden asteartean. Eroski, Euskadiko Kutxa eta beste enpresa batzuen irudiak hartu zituzten.



● **Enrike Kabiketa**, 42 urteko Arrasatearra pasa den astebukaeran Orion burutzen Krossean, beteranoen mailako lehen postua eskuratu zuen. Roneon lanean dabilen gizon hau, Euskadiko txapelkunorde ere izan da eta beste hainbat txapelketeatan ere hartu du parte.

● **Juanito Arzamendi**, 65 urteko Arrasatearra, Arrasate Musikaleko zuzendaria izan da jubilatuar arte. Bere postua Jose **Ramon Vitoriak** beteko du aurrerantzean.

● **Jose Ignacio Mora**, 31 urteko arrasatearra, Donostiako IKEI enpresara joan berri da lanera. Aurretik Euskadiko Kutxan, TU Lankide aldizkarian eta Nokia Data Suediar Multinazionalean ere egin du lan.



Ibai-Artek, Gabonetako eskaparateak txukuntzen ikasteko ikastaroa antolatu du. Pasa den astean hasi zen eta bihar bertan bukatuko da. Jose Antonio Lomasek eman-

go du eta gauza politak egiten ikusi ditugu. Zela prestatuko ote dizkigute Gabonetan Arrasateko eskaparateak?

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABALET'A

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62



SAMEGO  
GARBIKETAK

Uriburua, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39

**TB / BIDEOA / SOINUA  
ETXERAKO ELEKTROGAILUAK**

**DOHAINIK!!**

**AE ELKORO**  
Olarate, 1

**Aukera ezazu 2 zifrako zenbakia eta  
gabonetako loteriako sari nagusiaren  
bukaerarekin bat badator**

**EROSITAKOAREN DIRU KOPURU OSOA  
ITZULIKO DIZUGU**

**Azaroaren 16tik abenduaren 21era.**

**2.000 PTAtik gorako erosketa guztiak sartzen dira jokoan.**

**Jarritako egunen barruan egindako eta  
ordaindutako erosketarako bakar-bakarrik.**



# Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



## Azkenik eguraldi ona ere iritsi Zaldibarko Txapelketara

Kosta da, baina asteburu honetan eguzkia agertu zen Zaldibarko Futbito Txapelketara. Orain arte, aurtan baloiak hartu zuen lehen ostikadatik, ez da eguraldi onik izan Zaldibarren. Astebururo jokalariek, baloia jokatzeaz gain, zutik egoten egin behar izan dute ahalegina, bai Iturripe eta baita Zaldibar frontoiko zorua ere, laban

samarak dira eta. Eguraldiaren baretasunak, tregua antzera seguruen hemendik aurrera zerua nola portatuko den ia gauza jakina baita, orain arteko ihardunaldirik lasaienean, txapelketaren erabateko baretasuna ekarri du. Ea hego-haizearen sarrerak ez dituen gauzak okertzen.

Zarugalde kalean...

**BRANKA**  
taberna



**AMAJUR**  
taberna

EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE

**a**

**taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	8	7	1	0	64	15	<b>15</b>
ZULOAK	8	7	1	0	33	12	<b>15</b>
ARRASATE KIROLAK	8	6	1	1	34	18	<b>13</b>
LOS HEREDIA	8	5	1	2	39	14	<b>11</b>
BETRAYER	8	4	3	1	28	18	<b>11</b>
URMAY B.K.	8	4	2	2	29	19	<b>10</b>
AIZPUN BILA	8	5	0	3	31	23	<b>10</b>
DANOK LAGUN	8	4	2	2	23	21	<b>10</b>
SIBILIOUS ROVER	8	4	1	3	24	15	<b>9</b>
BUKANAK	8	4	1	3	27	25	<b>9</b>
KAIKO LENIZ	8	4	1	3	29	32	<b>9</b>
DRAFT	8	3	0	5	26	40	<b>6</b>
WHISKERIA LINDE	8	3	0	5	31	46	<b>6</b>
ITT	8	2	0	6	27	27	<b>4</b>
DRINK TEAM	8	0	3	5	9	28	<b>3</b>
GARIBAI-5	8	1	0	7	14	44	<b>2</b>
RESAKAS	8	0	1	7	12	43	<b>1</b>
AMOZKIBAR II	8	0	0	8	13	53	<b>0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>144</b>	<b>63</b>	<b>18</b>	<b>63</b>	<b>493</b>	<b>493</b>	<b>144</b>

**b**

**taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	8	8	0	0	38	9	<b>16</b>
ZIZTI-ZAZTA	8	6	2	0	37	13	<b>14</b>
BIZKORRAK	8	6	1	1	18	12	<b>13</b>
DIEGO ANTONIO	8	5	1	2	35	18	<b>11</b>
JODO FLORO	8	4	3	1	26	20	<b>11</b>
MOTZ	8	5	1	2	35	37	<b>11</b>
ZULUS	8	5	0	3	37	26	<b>10</b>
LA BANDA	8	4	1	3	24	19	<b>9</b>
PUBLICOOP	8	3	2	3	19	27	<b>8</b>
ANBOTOSTE K. T.	8	3	1	4	20	25	<b>7</b>
KAKAJAURI	8	2	3	3	20	27	<b>7</b>
GATZBAKUAK	8	2	3	3	19	29	<b>7</b>
TRONKOTEAK	8	2	1	5	26	33	<b>5</b>
LAUTHERBRUNNEN	8	1	1	6	12	34	<b>3</b>
BAYERN PROMESAS	8	1	1	6	13	40	<b>3</b>
ATERPE KAFETEGIA	8	0	1	7	11	26	<b>1</b>
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
<b>GUZTIRA</b>	<b>144</b>	<b>61</b>	<b>22</b>	<b>61</b>	<b>429</b>	<b>429</b>	<b>144</b>

**c**

**taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NOSKI	8	8	0	0	48	11	<b>16</b>
TRIKITI	8	7	1	0	51	11	<b>15</b>
LASO ARREGI	8	6	0	2	41	18	<b>12</b>
ADELAIDA HAIZEA	8	5	1	2	44	10	<b>11</b>
ADOBE F. C.	8	5	0	3	37	21	<b>10</b>
GURE LEKU	8	4	2	2	43	32	<b>10</b>
TXOKO TABERNA	8	5	0	3	24	23	<b>10</b>
AUF DEM KOFFER	8	4	1	3	21	24	<b>9</b>
ARRASATE KRIST.	8	4	0	4	31	22	<b>8</b>
NUEVO TABERNA	8	3	2	3	30	29	<b>8</b>
ALPARGATA TURBO	8	3	2	3	27	29	<b>8</b>
NAVARROS	8	3	1	4	26	31	<b>7</b>
KRISKIBALDA	8	1	3	4	18	28	<b>5</b>
GANELAS	8	2	1	5	16	27	<b>5</b>
ATXANTA KE TE...	8	2	0	6	16	54	<b>4</b>
ALLA KUIDAUS	8	1	1	6	14	53	<b>3</b>
SEGUROS ORB ITA	8	1	0	7	21	46	<b>2</b>
BALEIKE	8	0	1	7	13	54	<b>1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>144</b>	<b>64</b>	<b>16</b>	<b>64</b>	<b>523</b>	<b>523</b>	<b>144</b>

**d**

**taldea**

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	8	7	1	0	59	10	<b>15</b>
LEINTZ GARAGAR.	8	6	1	1	25	10	<b>13</b>
FOTO IMAGEN	8	5	2	1	39	21	<b>12</b>
LOS DIMY	8	4	3	1	47	24	<b>11</b>
NOTXINGAN FLO.	8	4	3	1	38	20	<b>11</b>
MONTERREY TAB.	8	5	0	3	35	23	<b>10</b>
KOKKAS	8	3	4	1	22	15	<b>10</b>
POTROAK LORATEGI	8	3	4	1	25	26	<b>10</b>
PEPELUS	8	3	3	2	31	21	<b>9</b>
ZOTZ	8	4	1	3	26	35	<b>9</b>
SOKOAKOAK	8	3	1	4	33	31	<b>7</b>
UGLYS	8	3	0	5	15	23	<b>6</b>
SOLANO 7 MARES	8	3	0	5	31	30	<b>6</b>
ARTZANKOS UDAL.	8	1	3	4	32	36	<b>5</b>
OLEEE!	8	2	1	5	22	38	<b>5</b>
EZKINAKO HONTZAK	8	2	0	6	18	52	<b>4</b>
BAYERN DE LENIZ	8	0	1	7	14	51	<b>1</b>
ILUNA TABERNA	8	0	0	8	11	57	<b>0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>144</b>	<b>58</b>	<b>28</b>	<b>58</b>	<b>523</b>	<b>523</b>	<b>144</b>



*Ruth*  
**GATZAGA**  
Jatetxea

IGANDE  
EGUERDIETAN ERE  
ZABALIK!

**Laneko bazkariak**  
**Lagunarteko askariak**  
**Bikoteentzako afariak**

**Giro ona, sukalde ona eta**  
**familiako tratua**

**GURE BEREZITASUNA:**  
**SASOIAN SASOIKO**  
**PERRETXXIKOAK**

Olarte kantoia, 3  
Tfnoa: 79 59 57  
ARRASTE

**LIZARRA**  
**taberna**

**Leintzibar kalea, 2**  
**ARRASATE**  
**Tfnoa: 79 72 35**

**BELARRIRA**



**Askotan futbitoan biltzen diren ikusleak, jokoari begira baino denborapasan eta berriketan egoten dira. Baloia ate ingurura iristen denean bakarrik finkatzen dira ikusleak begiradak jokoan, gehienak toki berbera begira. Fijatu argazkian.**

◆ **Azken orduko aldaketa** asteburu honetarako partiduetan. Hasieran, larunbatean arratsaldeko 7etan Laso Arregi eta Kriskibaldak jokatu behar zuten, baina partidu hori Ganbelas / Baleike partiduak ordezkatzuko du, igandean eguerdiko ordubatean jokatu behar zen partidua erekin.

◆ **Zaldibarko Futbito** Txapelketako bilera abenduaren lehen astean egitea nahi zen, baina antolatzaileek hirugarrenaerako jarri behar izan dute eta azkenik, hilaren 16an egingo da. Talde bakoitzeko delegatua- ren presentzia eskatzen da eta antolatzaileek partaide- tza handia espero dute; agertzen ez direnei puntu bana kenduko zaie eta.

◆ **Asteburuko partidu** interesgarrienak: A taldean, Los Heredia - Sibilius Rover, B taldean Mikelo's - Bizkorak, C taldean Gure Leku - Auf Dem Koffer eta D taldean Notxingan Florest - Sum. Industriales Ugarte.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Drink Team 3 .....	Draft 5
Zuloak 4 .....	Resakas 0
Bukanak 1 .....	Arrasate Kirolak 3
Danok Lagun 2 .....	Betrayer 5
Aizpun Bila 2 .....	Kaixo Leniz 4
Sibilius Rover 1 .....	Urmay B. K. 2
Los Heredia 7 .....	Garibai-5 1
ITT 2 .....	Argi Ibili 4
Whiskeria Linde 9 .....	Amozkibar II 6

**C TALDEA**

Atxanta ke te... 4 .....	Seguros Orbita 3
Alpargata Turbo 0 .....	Gure Leku 8
Laso Arregi 10 .....	Adobe F. C. 3
Ganbelas 2 .....	Nuevo Taberna 4
Navarros 4 .....	Kriskibalda 3
Noski 14 .....	Alla Kuidaus 3
Trikiti 2 .....	Adelaida Haizea 1
Baleike 1 .....	Auf Dem Koffer 2
Txoko Taberna 2 .....	Arrasate Kristal. 1

**B TALDEA**

Mikelos 3 .....	Anbotoste K. T. 1
Kakajauri 3 .....	Zulus10
Publicoop 2 .....	Jodo Floro 2
Aterpe Kafetegia 1 .....	Bizkorak 2
Bayern Promesa 0 .....	Tronkoteak 7
Diego Antonio 0 .....	Zizti-Zazta 1
Motz 6 .....	Gatzbakuak 3

**D TALDEA**

Monterrey tab. 2 .....	Notxingan Flo. 4
Foto Imagen 6 .....	Sokoakoak 6
Uglys 0 .....	Leintz Garagardotegia 1
Ezkinako Hontzak 2 .....	Los Dimy 8
Oleee! 4 .....	Pepelus 2
Artzankos Udalaiz 3 .....	Koxkas 3
Bayern de Leintz 2 .....	Zotz 4
Potroak Lorategi 5 .....	Solano 7 mares 4
Iluna Taberna 1 .....	Suministros Ugarte 9

*Tripipublic*

Kanpatorpea, 2  
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 28**

**Zaldibar**

- 08.45 Ezkiñako Hontzak / Potroak Lorategi
- 10.00 Drink Team / Danok Lagun
- 11.00 Lautherbrunnen / Diego Antonio
- 12.00 Leintz Garagardotegia / Koxkas
- 13.00 Adobe / Alla Kuidaus
- 14.00 Oleee! / Iluna taberna
- 15.00 Gure Leku / Auf Dem Koffer
- 16.00 Resakas / ITT
- 17.00 Sokoakoak / Solano 7 mares
- 18.00 Nabarros / Txoko Taberna
- 19.00 Ganbelas / Baleike

**Iturripe B**

- 13.00 Aizpun Bila / Whiskeria Linde
- 14.00 Kakajauri / Zizti-Zazta
- 15.00 Zulus / La Banda
- 16.00 Arrasate Kirolak / Urmay Burger King
- 17.00 Draft / Amozkibar II

**Iturripe A**

- 11.00 Publicoop / Tronkoteak
- 12.00 Mikelos / Bizkorrak
- 13.00 Betrayer / Argi Ibili
- 14.00 Bukanak / Kaixo Lepiz
- 15.00 Bayern Promesas / Motz
- 16.00 Sibilius Rover / Los Heredia
- 17.00 Anbotoste K. T. / Gatzbakuak

**Igandea 29**

**Zaldibar**

- 08.45 Zuloak / Garibai-5
- 10.00 Notxingan Florest / Sum. Ind. Ugarte.
- 11.00 Noski / Trikiti
- 12.00 Seguros Orbita / Arrasate Kristaldegia
- 13.00 Laso Arregi / Kriskibalda

**Iturripe A**

- 09.45 Atxanta ke te merces / Nuevo Taberna
- 11.00 Monterrey taberna / Los Dimy
- 12.00 Uglys / Pepelus

**Iturripe B**

- 09.45 Alpagata Turbo / Adelaida Haizea
- 11.00 Foto Imagen Argazki / Zotz
- 12.00 Artzankos Udalaiz / Bayern de Leintz



**SARITUA**



Asmatzaile ugari izan dira hil honetako **Non dago baloia?** lehiaketan, baina beti bezala, irabazlea bakarra eta kasu honetan, zozketan **Miren Ozaetaren** izena agertu zen. Beraz, Arrasate Kirolak-en materialean jasoko dituen **20.000 PTak** berarentzat izango dira, eta ez zaizkio gaizki etorriko langabezian dago eta.

Ah! ikusten duzueenez, baloia 4ean, 3an eta 2an zeuden. Datoren astetik aurrera, beste argazki batzuk.

*Trikiti*

S. L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

● Sara Agirre

# Bosniarren errealitatearen lekuko

**Hiru astetan Kroaziako Gasiñi herriko erre-fuxiatu kanpamentuan egon da Sara, familia bosniarrekin. Egunean umeekin egotea izan da bere lana. Jadanik Arrasaten dugu, baina han bizi izan dituen egun horiek ezin ditu burutik kendu.**

— Nola hartu zenuen Kroaziara joateko erabakia?

— Nire kasuan, jende asko bertara joanda zegoela entzun nuen eta han egonda-koek bertako gauzak kontatzen zizkidaten. Gauza horiek entzun ondoren, zerbait egitea pentsatu nuen eta Kroaziara joatea erabaki nuen.

— Joan nahi duten guztiak joan daitezke?

— Ez, interesatuena zerrenda luzeak daude baina apur batzuk bakarrik joaten dira. Bi gauza eskatzen dituzte: ingelesa jakitea eta umeekin esperientzia izatea. Zagreb-eko Pakearen aldeko Zentrutik egin duten eskaera baten arabera, euskaldun gehiago joango dira. Kurio-

soa da, zergatik eskatzen duten euskaldun gehiago? Ikusi dudana ikusi ondoren, oso garbi dago. Salbuespen batzuk ezik, katalanak eta euskaldunak gara lan egiten dugun bakarrak. Badirudi besteak: argazkiak egitera eta esperientzia berri bat bizi izatera joaten direla.

— Zer motatako ohiturak dituzte familia horiek?

— Beno, kanpo guztian ez dut ikusi familia osorik. Batzuk desagertu egin dira, beste batzuk gerran daude eta beste asko hil egin dira. Horietaz aparte, batzuk kontzentrazio zelaietan ere badaude, existitzen dira eta. Guztira 2.000 inguru geunden eta gehienak umeak, emakumeak eta pertsona nagusiak. Gehienak musulmanak ziren baina gutxi ziren praktikanteak.

— Zer egiten zenuen egun normal baten?

— Ia egun osoa umeekin pasatzen nuen. Berez, nire lana goizeko 10etatik 12etara eta arratsaldeko 3etatik 6etara eurekin egotea zen baina hori ezinezkoa zen.



Jaiki orduko ume pila bat izaten nuen dendako atean eta irteten nintzen momentuan eskutik heldu eta gure atzean ibiltzen ziren. Horregatik ezin izan dut lana bezala hartu, niretzat eurekin bizi izatea izan da.

— Herrialde askok familia hauek jasotzeko eskaerak egin dituzte. Eskoriatzara ere badirudi 20 etorriko direla; zer iritzi duzu horri buruz?

— Han bizi duten egoera ez da ideala baina eurek esaten duten bezala, nahiz eta etxea aspaldi galduta izan, lurra ez dute bertan behera utziko. Diru piska bat lortuz, alboko herri baten bizimodu berria hastea dute helburutzat. Horregatik, hemen sei hilabete pasatu ezker, berriz bueltatu beharko dira.

Neurri egokiena da?

— Bidaltzen diren laguntzak heltzen dira?

— Bai, egunero heltzen da zerbait: janariak, erropak eta abar. Hala ere, gerra guztietan bezala, batzuk pobretuz doazen heinean, besteak aberastuz doaz. Behin errefuxiatuen kanpoko nagusiak zuen biltegia ikusi nuen, eta benetan harrিতa geratu nintzen. Denetatik zegoen: mantak, barazkiak, beste janariak, oinetakoak, erropa berriak... eta neure artean pentsatzen nuen: "Ez da posible. Kanpoan jendea ortozik eta ezer jatekorik gabe dagoen bitartean, zertarako nahi ditu honek gauza guzti hauek?" Gero konturatu nintzen, kamioi batzuk etortzen zirenean, hara joaten zirela zuzenean eta produktu guzti hauek biltegian sartu eta berak saldu egiten zituela. Horregatik, oso ondo jakin behar da nori bidali. Gurutze Gorriaren bidez bidaltzen zirenak, gure eskuetara heltzen ziren.

● **"Gerra guztietan bezala, batzuk pobretuz doazen heinean, beste batzuk, bosniarren txarrerako, aberasten doaz"**

## **Ekonomia krisialdia eta langabezia; Udalaren eginkizuna**

Udalerriko garapen ekonomikoak interes publikoa duen heinean -are gehiago ekonomi krisialdian-, sustatzaile eginkizuna neurri haundi batean Udalarari dagokio. Arrasateko kasuan, Udalak 1989an Enplegua Sustatzeko Zerbitzua sortu zuen, ardura horretaz jabetuz.

Funtzio hau betetzeko bide desberdinak jorratu dira; adibidez, prestakuntzarako ekintzena, lanbide bat praktiken bidez ezagutzeko ikastaroetan gauzatua. Orain artean hau izan da biderik ohizkoena, prestakuntza egokia izatea gaur egun nahita nahiezkoa baita langabeziaik ateratzeko.

Aurten, formazio ekintzez aparte, lehenengo aldiz beste programa mota bat jarri da martxan, Arrisku-Soldatarena, alegia. Programa hau enpresa-idea bat duenari laguntza ekonomikoa nahiz teknikoa ematea da, bere proiektuaren bideragarritasuna aztertu dezan eta, ahal izanez gero, negozioa abian jartzeko. Helburua, beraz, norberaren lanpostua sortzea da, langabeziari aurre egiteko modurik aktiboena aukeratuz.

**MARGA GARMENDIA, UDALEKO ENPLEGU TEKNIKARIA**

## **Enpresak krisiaren aurrean**

Uste dut krisia orokorra dela, berbera da Espainia, Europa, EEBBn edo Japonian dagoena. European herrialde baten lidergoa falta da, orain arte Alemaniak bete du paper hori, baina unifikazioak gogor astindu du. Hala ere, uste dut krisia ziklikoa dela.

Agintariak, industri-krisiaren ondorioak konpontzeko neurriak hartzeaz arduratu beharrean, denbora gehiago ematen dute aginteari nola

entsi pentsatzen.

Enpresariak enpresa konpetitibo bihurtu beharko lukete, kalitatea eta produktibitatea hobetuz, azken finean enpresa modernizatzea litza-teke.

Uste dut krisiak oraindik bi urteko iraupena izan dezakeela gutxi gorabehera. Orokorrean, esango nuke Euskal Herriak gaudituko duela krisia, beti jakin izan du eta krisietatik nola irten. Hala ere, argi dago enpresa guztiek ez dutela krisia gaudituko: krisirik ez zegoenean ez inbertitzea eta kalitate eta produktibitate falta izan daitezke arrazoiak. Enpresan inbertitzeaz baino, diru asko irabazteaz gehiago arduratu direla esan daiteke.

**IGOR ALTUNA, ALEJANDRO ALTUNA ENPRESAKOIA**

# **Krisia?**

**AZKEN ALDEAN KRISI HITZA ASKOTAN ENTZUTEN DA, OINEZKOEN GUSTORAKO LARREGI SEGURUEN. ZERGATIK SORTU OTE DEN, ZER ERAGIN IZANGO DUEN, LUZERAKO ALA MOTZERAKO IZANGO OTE DEN, GERRIKOA ESTUTZEKO ESKATZEAZ GAIN AGINTEAN DAUDENEK ZERBAIT GEHIAGO EGINGO OTE DUTEN... GALDERA HORIEK ERANTZUNEZ, SEI IRITZI DESBERDIN. BETI BEZALA, EZ DAUDE DIREN GUZTIAK, BAINA DAUDENAK BADIRA.**

## **Eta guri zer axola?**

Krisi Ekonomikoa eta Soziala ikusi, eta guri zer axola?  
Egunero aberasten ari diren oportunistak ikusi, eta guri zer axola?  
Arduradunen Soldata eta derrotxea ikusi, eta guri zer axola?  
Ustelkeriaren bidez eraikitzen diren fortunak ikusi, eta guri zer axola?  
Euskal Herrian 150.000 benetako behartsu, Estatu Españolean 10 milioi, EBBB 40 milioi, European 50 milioi, Munduan auskalo, eta guri zer?  
Hainbat lantegitan Expedienteak ikusi, eta guri zer?  
Union Cerrajeran, Elman... gertatzen dena ikusi, eta guri zer axola?  
Behin behineko langileen soldatak ikusi, eta guri zer axola?  
Arrasaten 1.230 langabetu, Deba Garaian 2.770, Gipuzkoan 37.700, Estatu Españolean 2.270.000, eta guri zer axola?  
Europa liluragarriak Baserritar, Arrantzale eta fabriketako Langileei dakarkien egoera ikusi, eta guri zer axola?  
Baimenik eman gabe European sartu gaituztela ikusi, eta guri zer?  
Gure etorkizuna eraikitzeke tresnak kentzen dizkigutela ikusi, eta guri zer axola?  
Irtenbideak gai ekonomikoei soilik bilatzen dizkietela ikusi, eta guri zer?  
Halako egoerara bultzatzen gaituzten PNV eta PSOE ikusi, eta guri zer axola?  
Hitz mamitsua den Solidaritatea desagertzen ari dela ikusi, eta guri zer axola?

Geurea defenda dezagun!


**PATXI ARBURUA, LAB**

## Nazioarteko krisia

Euskal Herria bizitzen ari den krisia, mundu industrializatuaren gainontzeko herrialdeetan ere igartzen da. Merkatu ekonomietan ebata ezinak dira noiz behinkako atzerakadak, baina oraingo krisi hau bereziki gogorra da, ekonomiaren hiru erraldoiak —Alemania, Japonia eta EEBBak— geldituenak jasaten ari dira era berean eta. Zoritxarrez, herrialde handien arazoak bazkide komertzial txikien ekonomietan handitu egiten dira. Mexikarrek zera diote: “EEBBek doministiku egiten dutenean, Mexikok pulmonia harrapatzen du”. Krisia ez zen hemen sortu, beraz ezin daiteke hemen konpondu. Antzerako herrialdeek ezer gutxi egin dezakete krisiaren eraginetik babesteko.

Goizegi da oraindik krisia noiz bukatuko den esateko goizegi da oraindik, nahiz eta ekonomia garrantzitsuetan hobekuntza batzuk ikusi. Hala ere, ganorazko hobekuntzak ikusi ahal izateko gutxienez pare bat urte beharko dira. Ordura arte, inportantea da errekurtsoen balorazio berri bat egitea eta onura gehiago ateratzea, teknologia berrietan eta birziklaketa profesionalean inbertituz. Ekonomia gero eta mugikorragoa eta kompetitiboagoa da, eta mundu horretan iraun ahal izateko, flexibilitatea, langilego kualifikatua eta toki bakoitzean, ondoen egiten diren gauzak egin beharko dira.

**TERENCE H. MARTIN, EKONOMILARI AMERIKARRA**



## Kooperatibak eta krisia

Krisi ekonomikoa da azken aldean komunikabideetan gehien entzuten dugun hitza.

Garai batean, kooperatibak auto-gestionatutako enpresak zirela aipatzen zen, kapitalismoaren alternatiba; gaur egun, halakorik ez da entzuten eta zehaztasun hori egitea, egungo egoerari buruz hitz egin eta iraganeko iturritik ez edateko, komenigarria iruditzen zaizkigu. Beti pentsatu izan dut kooperatibak, sistema ekonomikoan, ez direla irlak izan eta baliabide guztiak erabiltzen dituztela, beste edozein enpresa moduan interesen arabera.

Esan behar da bestalde, kooperatibista izateak gaintzeko langileekiko desberdintasunak ezartzen dituela; baina “kooperatibisten desberdintasuna” neurri gizagabeen ezarpena besterik ez

da: egutegi mugikor eta aldakorrak, MTMa, mugikortasun funtzionala eta edozein enpresari kapitalistak beretzat nahi lituzkeen hainbat neurri.

Norbaitek esan dezake kooperatibetan ez dela beste enpresetan bezala funtzionatzen, baina erantzun behar dut ez dagoela kapitalismoaren lege ekonomikoaren aurka ezer egin dezakeen asanblada orokorrik. Krisialditik irteteko neurriak lehen aipatutakoak baino gogorragoak izango dira, eta horrek ondo erakutsiko du zuzendari eta zuzendutako enpresen artean dauden diferentziak.

Dena dela, krisiaren ondorio guztiak ez dira txarrak, eta uste dut langileen erreflexiorako garai ona dela, elkartzuna, sindikatuetako borroka eta antolakuntza sistemei moduko gaien inguruan, gizon eta emakume libreen gizararekin amets egiten hasteko garaia.

**JOSE ANGEL ETXEBERRIA,  
KOOPERATIBISTA TALDEA**

## Merkataritzaren egoera gaur egun

Gripe prozesu bikoitza antzematen da: 1) Geurea, gobernariaren politikaren ondorioa (TAV edo AAT-eko erabakia eta interes tipoen igoera esate batera). 2) Nazioarteko krisia.

Merkataritzaren egoera ez da ona. Betidanik nahiko ezezaguna izan da sektore hau, bai instituzioen aldetik eta baita kaleko jendearen aldetik ere, nahiz eta pisuzko sektorea izan, Gipuzkoan 11.500 pertsona, langilegoaren %14a. Dena dela, inguruaren menpe dago, industriaren osasun onaren menpe.

Egungo momentu txarri, bi faktore gaineratu behar zaizkio:

1) Instituzioek, gune komertzialak indartu beharrean, superfizie handien politika bultzatzen dute.

2) Merkataritza, industriaren soberakinen babesleku bihurtu da, indemnizazioak kobratu eta gero, sektorea ezagutu barik, negozioa irekitzea pentsatzen duen jendearen babesleku. Emaitza penagarria da, irekitzen diren 100 denda berrietatik 44 bost urte pasa aurretik ixten dira. Ondorioz, beharpenak denboraldi erdi-erdian, sektorea-

ren depreziazioa, inbertsioaren galera, zeseak... kanpotik sektorea profesionaltasun ezaz ikustea lortu den arte.

Merkataritza berrindartzeko beharrezko neurriak:

- Dauden merkatal-guneak aprobetxatuz, banaketa berregokitu area historiko edo berrietan.

- Espezializatorainoko formakuntza bultzatu.

- Zerbitzuak eskaini eta irudia hobetu.

- Udal bulego bat sortu komertzio posibleen inbertsioa zuzentzeko helburuz.

**JESUS URIARTE,  
IBAI-ARTEKO LEHENDAKARIA**

# Patxi Gorosabel, ohorezko mailan azkenik

**Iaz**, aurtengo denboraldiari begira, rugbya utzi egingo zuela zioen Patxi Gorosabelek, kirol honi hamazortzi urte eskaini dizkion mutilak. Usteak ustel gertatzen dira askotan eta erretiroan pentsatzen zegoenari, ustegabeko eskaintza iritsi zitzaion irailaren hasieran: aurtengo denboraldia ohorezko mailan eta Bera Bera taldearekin jokatzea.

Gorosabelek ez zien Bera Berakoei bapateko baiezkorik eman, dudak baitzuten. Aurre-denboraldia talde biek in egin zuen, Bera Bera eta Mondrarekin. Urrian sartuta, baiezkoa eman eta ohorezko mailan jokatzea erabaki zuen. Hala ere, ez du Mondrarekiko harremana moztu, eta bera da Mondra zuzentzen duen gizona; beraz, astelehen eta asteartean Mondra entrenatzen du, eta asteazken eta ostegunetan Bera Bera taldean entrenatu. Ohorezko maila gutxi balitz, Euskadiko selekzioan ere egin diote toki bat, eta abenduaren 6an, esate baterako, Katalunian izango da Euskadiko selekzioarekin.

Batetik bestera diferentzia handia dagoela zioen Patxi Gorosabelek, batez ere teknika aldetik. "Askoz ere zailagoa da. Hemen oraindik ez dugu maila hori lortu,



Patxi Gorosabel, hamazortzi urtez jantzi duen elastikoaz. JABIER

baina hobetuz goaz. Hasi nintzanean, ideiarik ere ez geneukan; orain gauzak asko aldatu dira".

Berandu samar hartu du Patxi ohorezko mailan jokatzeke erabakia, 33 urte gutxi ere ez dira eta. Goi-mailarako aurrerapausua egiteko aukerarik izan zuen, Madrilako talde batek gazteago zela deitu zionean; baina orduan, Arrasatek ti-

ratu, eta ez aldegitia erabaki zuen. Gorosabel ohorezko mailan jokatzen duen lehen arrasatearra izateak esanahi berezia dauka, ez bera delako, beste batzuentzat bidea zabalik uzten duelako baizik. Badirudi bere lehengusuak, Sebas Gorosabelek, izan duela eskaintza-ren bat. Arrasateko harrobiko lehen harri bitxiak azaleratuz, beraz.

## LABURRAK

### Hasiera bikaina ziklo-krosean

Duranan burututako ziklo-kros lasterketan Dorletako kade-teek, garaipenak lortu zituzten bigarren eta lehen urteko kategorietan: bigarren urtekoetan Mikel Roldanek eta lehen urtekoetan Sergio Frutosek. Datoren asteburuan, Gipuzkoako denboraldia hasiko da eta hor ere, izango dute zeresanik Dorletako gazteek.

### Astebukaera ederra saskibaloiarentzat

Bazirudien aurtengo liga-txapelketan Arrasate Saskibaloitaldearen jokoa ez zela aurreko urteetako bezain ona, baina joan den astebukaeran aurrerapauso galanta egin zuen. Alde batetik, Tabirakori eta bestetik Araba taldeari irabazi zieten. Bi garaipen horiek medio, sailkapeneko hirugarren posturaino igo dute Txus Brizuelaren mutilek.

### Kabiketa garaile Orioko krosean


Enrike Kabiketa arrasatearra garaipena lortu zuen igande goizean Orion burututako krosean. Kabiketak beteranoetan hartu zuen parte.

Noetan Gipuzkoako Txapelketarako gutxieneko markak lortzeko probak burutu ziren. Aitor Arnaiz 200 metroan 23 segundu eta 14 dezimako denboraz eta Alex eta Gabi Saavedrak eta Joserra Petreñasek 1.500 metroetan lortu zituzten marka horiek. Gainontzeko atletek ez zuten gutxieneko markarik lortu.

**VE ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeiño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**PENALTIAK**

● **Pala jokalarien eta eskuzko jubenilen lana bukatu da dagoeneko Gipuzkoako klub-en arteko txapelketan, txapelketa bukatu zaie eta. Hala ere, ez dago sailkapenen berririk, kantxa gainean antolakuntza arazo barik burutu den txapelketa, paper artean galdu egiten da eta. Oraindik, lehen bueltako sailkapenak ere, ez dira jakitera eman.**

● **Eskubaloiko juniorrek asteburu honetan Deban jokatu behar dute, baina ez debatarren aurka, Mutrikuko Jauja taldearen aurka baizik. Dirudenez, asko dira hemen baino okerrago dabilzanak eta Mutrikun ez dute eskubaloian jokatzeko tokirik.**



**Eskubaloiko jubenilak, etxean jokatu duten bakarrak**

Arrasate Eskubaloiko taldeek ez zuten aparteko emaitza onik lortu, kadeteek izugarritzko paliza hartu zuten, jubenilek gutxiatik galdu eta seniorrak ere galtzaile. Irabazteko gai izan ziren bakarrak, juniorrak, 28 eta 18 Urolari. Asteburu honetan kadeteek atsedena izango dute, eta ez zaie txarto etorriko joan den asteko paliza ahazteko. Etxean jokatu duten bakarrak, jubenilak, Iturripen eta La Salle Legazpiaren aurka, partidu interesgarria eta borrokatua seguruen.

**Zer esan nahi dute joan den asteko bi garaipenek?**

Bada ekipoa gorantz doala. Hasieran gaizki ibili ginen, arerio txarrei irabazi bai, baina onei ez. Orain guztiei irabaziko diegu eta A-lean sartuko gara.



**GERARDO MONDRAGON**  
**Arrasate Saskibaloiko taldeko jokalaria**

**EMAITZAK**

**Pilota**

Gipuzkoako liga:  
Alebinak: Arrasate 15 - Zumarraga 18  
Infantilak: Arrasate 18 - Zumarraga 3  
Kadeteak: Arrasate 18 - Zumarraga 5  
Nagusiak: Ezkuz-esku: Arrasate 9 - Bergara 18  
Bikoteka: Arrasate 22 - Bergara 10  
Paletaz: Arrasate 27 - Idiazabal 35  
Pala motzez: Arrasate 31 - Idiazabal 40  
**Hurrengo partiduak**  
Infantilak, Iturripen larunbatean 11etan, Aretxabaletaren aurka.

**Saskibaloia**

Seniorrak: Arrasate 79 - Araba 78  
Juniorrak: Arrasate 75 - Bosteko 63  
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate A 86 - Loyola A 73  
Emakumezkoak: Don Bosco 57 - Arrasate A 39  
Kadeteak: Gizonezkoak, Arrasate A 68 - Amigos Bcto. 31  
Iraurgi 67 - Arrasate C 52  
Emakumezkoak: Ordizia 52 - Arrasate B 41

**Hurrengo partiduak**

Emakumezkoak: Arrasate - Juven, larunbata 6etan Musakolan.  
Jubenilak: Emakumezkoak, Arrasate A - Amigos Bcto., igandea 12etan Musakola.  
Kadeteak: Arrasate B - Iraurgi, larunbata 12etan Musakolan.  
Arrasate C - Almen, igandea 12etan Musakolan.

**Eskubaloia**

Kadeteak: Argitan 21 - Arrasate 9  
Jubenilak: Leizaran 16 - Arrasate 14  
Juniorrak: Arrasate 28 - Urola 18  
Seniorrak: Arrasate 20 - Carmelo 24  
**Hurrengo partiduak**  
Jubenilak: Iturripen, igandean eguerdiko 12etan La Salle Legazpia taldearen aurka.

**Futbola**

3. maila: Arenas 2 - Mondra 2  
Preferentea: Alaves 2 - San Andres 0  
Emakumezkoak: Intxaurdi 0 - Mondra 15

**Jubenilak:**

Ohorezko liga, Urola 3 - Mondra 1  
Lehen maila, Vulcano 0 - San Andres 0  
Bigarren maila, Arrasate 10 - Bergara 0  
**Kadeteak:**  
Lehen maila, Arrasate 1 - Aitzgorri 1  
Bigarren maila, Iintxa 3 - Arrasate 1  
**Umeak:**

Arrasate 4 - Ordizia 0  
Arrasate 2 - Soraluze 3  
**Hurrengo partiduak**  
3. maila: Mondra - Galdakao, igandea Atxabalpen 15.30.  
Preferentea: San Andres - Aranbizkarra, igandea Atxabalpen 12.00.  
Emakumezkoak: Mondra - Orioko, igandea Atxabalpen 10.00.  
**Jubenilak:**  
Ohorezko liga, Mondra - Elgoibar, larunbata, 15.30.  
**Kadeteak:**  
Lehen maila, Arrasate - Urola, larunbata, 11.45.  
**Haurrak:**  
Arrasate - Bergara, larunbata, 10.00.



**ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA**

**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

**Gabriel Elorriaga Dka.**

**Loditasuna Zelulitia Zelulopolisiaren tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)  
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

# Garraiobideak

**Kapital** pribatuak hiriburuetara bideratu ditu bere inbertsioak, zentro politiko eta erabakiorrak hiriburu handietan bantzeko sortzen dituzten arazoak egon arren. Antolaketa era berezi honek garraiobide behar handiak eskatzen ditu. Gure mundua gidatzen duten interes ekonomiko boteretsuek errepide-garraiobideak priorizatu eta ibilgailu pribatua bultzatzen dute.

Instituzio nahiz komunikabide gahienek Euskadik komunikabideen beharra duela diote. Eskeintza elektoralak haien dimentsioetan zentratzen dira. Inork ez ditu pixuzko arazoak ematen, hitz huts eta handiak baizik. Honako galdera hauek egin diezazkiogun gure buruari: Euskadik azpiegituren beharrak ditu? Zelako gizarte-eredua proposatzen dute? Beharrezkoa da hainbeste produktio eta kontsumo?

Kontesto honek gaurrengungo egoera patetikora bideratzen gaitu: motorizazioa eta hiri-trafikoaren izugarriko gehikuntzak sortzen dituen arazo desberdinak. Bestek beste honako hauek azpimarra ditzakegu:


- 1- Kutsadura atmosferikoa.
- 2- Gehiegizko energi-kontsumoa.
- 3- Ingurugiro arazo izugarriek sortzen dituzten milioidun azpiegituren eraikuntzak.
- 4- Garraio pribatua, hots, kotxea

tronoan ezartzea.

- 5- Zarata-arazoak.
- 6- Heriotz kopuru izugarria, honak dakarren drama soziala dela medio.
- 7- Istripuek dakartzaten osasun eta gizarte-kostuaren gehikuntzak.
- 8- Aparkaleku eta trafiko-pilaketa arazoak.

Deba garaia norabide horretan dago. Garraiobide-plan orokorrak bigarren mailan uzten ditu eskualdeak, hiri eta industrialde esparruen mesederako. Bertan dago azpiegitura-programa izugarria: Deba-korredorearen hobekuntza, Durango-Beasaingo errepidea, Maltzaga-Armiñan autopista, eta Abiadura Handiko Trena. Autopistak bakarrik 50.000 miloiko aurrekontua du. Eraikuntza hauek eztabaidagarriak dira, batetik, kotxearen erabileraren bultzada ederra dakarrelako, bestetik, ingurugiro inpakto izugarriak erango dituztelako, eta azkenik, inbertitutako kapital hori gizarteak dituen beste hainbat behar betetzeko erabil daitezkelako. Azpiegitura-programa hau eztabaidatu egiten, dauden garraiobideetan hobekuntzak egitearen alde egon arren. Garraio eta azpiegituren arloa beste ikuspegi batetik begiratu behar dugulakoan gaude, eta honen gain arituko gara hurrengo artikuluan baten.

Mikel Olabe (EKI)



## Begira...!

1-Espainiako "parke mobilak" (12 miloi berebil) airera isurtzen dituen gai kutsatzaileen kopuru eta motak honako hauek dira:

- 3.000.000 tona karbono (II) oxidoa
- 500.000 tona nitrogeno oxidoak
- 400.000 tona hidrokarbu-roak
- 1.600 tona beruna.

Pentsazazue, EEEko parke mobila 120 miloitik gorakoa bada, eta EEBBkoa 144 miloi baino gehiagokoa, zer nolak isurketa den!



## Zure kotxeak gutxiago kutsatzea

### nahi duzu?

Hona hemen aholku batzuk, gure kotxeek gutxiago kutsa dezaten:


- Gasolina galera edo ihesak inguru desberdinak kutsatzen dituzte. Kotxea aparkatzen duzun tokiak ondo behatu, ihesak detektatzen badituzu, konpontzera eramateko.
- Kotxekeo filtroak zikin izaten badituzu, gasolina askoz gehiago erreko du.
- Gurpilak presio optimoan badituzu,

denbora gehiago iraungo dute, eta gainera Km. bakoitzeko gasolina kontsumoa gutxitu egingo duzu.

- Olioia, 5.000 Km. egin ondoren, edo hiru hilabeteka aldatu, motorean gertatzen den erreketak garbiagoa izan dadin. Gogoratu hainbat tailerretan, olioia batzen dutela birziklatzeko. Eramazazu bertara.

■ Abiadura moderatua eta konstantea eramaten baduzu, kontsumoa eta ekintza kutsatzailea gutxitu egingo dituzu.

- Ez da beharrezkoa kotxea sarritan garbitzea. Hilean behin nahiko litzateke.
- Ahal duzun neurrian bizikleta eta garraio publikoak erabili. Kotxea, bizilagunekin konpartitu eta oinezkoak errespetatu.



*Ondo jaztea eta gainera eroso joatea gustatzen bazaitzu...*



*Zugandik hurbil eta harrituako zaituen prezioekin San Andresen,  
autobus geltoki ondoan.*

Araba Etorbidea, 18


ARRASATE

Tfnoa: 77 14 86



**Kirol bakoitzerako erantzun bat.  
ORAIN MENDIZALEENTZAKO SEKZIO BEREZI BAT ERE BAI.**

Astore  
North-Face  
Millet  
Marmot  
Saleva  
Lowe  
Duofold  
Helly Hansen  
Rivori Joanny  
Vessant  
Trango  
Boreal  
Bestard  
Roca  
Kamet




**ARRASATE  
KIROLAK**

Kontzeziño, 8

Tfnoa: 79 46 12 / 77 12 47

ARRASATE





**KAXINTO ETA NARTZO (IV)**

Le ta euren kezizak eskaini zizkioten. Baina eskaini bazioten eskaini zioten, nori eta Madaripeko Mikolasi. Horrek, infernuko txerren guztien nagusiztat ematen zion indarrarekin, mutil bien itzalak bahitu edo enbargatu zituen beretzat, eta handik aurrera, eguzkitan egon arren, ez zuten euren gorputzek errainu txikienik botatzen, eta kanpora irtetea lortu bazuten ere, konturatu ziren lehengo antzera Mikolaisen menpe aurkitzen zirela.

Ordu laurdeneko bidea bezala Kazkomutegiko euren etxera izan arren, ez ziren auzartu tankera negargarri hartan presentatzen. Eguzkitan kerizarik ez izatea, txerrenarekin harremanak zituzten seinalea baitzen.

Estura hartan zer egin piska baten egon ondoren, apaiz edo fraileren batekin zehatz edo garbi aitortzea erabaki zuten. Baina, nola azaldu jende askok ikusi gabe? Orduan... Arantzazura bertara joatea erabaki zuten.

Arantzazu non zegoen ez zekiten, behin ere han egon ez zirelako. Bakarrik zekiten Oñati non zegoen, gutxi gora behera, eta handik gora joan eta joan aurkitzen zela Arantzazu. Goseak eta nekeak leher eginda, inork ikusi ez zitzaizkan, beti basotik, bertako mastusa, andrabelar eta basarnak janez, iritsi ziren Arantzazura, hirugarren eguneko iluntzean.

**ARREGI TAR TIBURTZIO**

# Galartzako dorretxea

**Euskal** Herrian eraikitako lehen dorretxeen berri 1200 urtetik daukagu, gutxi gora behera. Horien artean bat, hurbil asko dugu, Aretxabaleako Galartza auzoan. Murugain mendiaren magalean eraikia, estrategikoki kokatua dago Leniz bailararen zati handi bat ikusteko moduan. Felisa Ugaldek, gaur egun jabe den familiakoak, ikerketa serioa egin du etxearen inguruan, eta bere esanetan, Euskadiko dorretxerik zaharrenetakoa izango da, eta bertatik sortu ziren pertsonaien bidez dakigu horren berri: Fernan Darias de Galarza, Alhambra-ko Komendadorea eta Santiagoren ordenakoa, jatorriz Leintz Bailarako Ga-

lartza Oinetxekoa dela agerida 1236an.

**Eraikuntzaren ezaugarriak**

Dorretxea oin laukikoa izan zen bere jatorrian, murrer sendo eta harlanduan egina. Eliza erromaniko bat ere bazela esaten dute, gaur egungo elizaren absidea dagoen lekuan. XVI. mende aldera edo, errefortzuak jarri zitzaizkion dorretxeari.

Dorretxeak defentsarako almenak ere bazituela esaten da, baina Enrique IVak 1457ko apirilaren 21eko aginduarengatik kendu egin ziren.

Bake garaietan, XV. mendean, gaur egungo eliza eraiki zen, atari gotikoarekin.

**Erre eta suntsitzea**

1802an kolonoak bizi ziren bertan. Galartzatarrak Mondragoen bizi ziren. Gaur egungo jabeek 1930ean erosi zuten Galartza Dorretxea.

1990eko abuztuaren 2an, suak hartu zuen goizaldera, inork ez daki nola. Familiak irtetea lortu zuen eta barruan toneladaka egur erre zen, harria ere kaltetuz.

Orain, erakundeekin harremanetan daude jabeak etxea berregokitu eta historikoki duen esanahia aprobetxagarri egiteko. Bitartean, harlanduak desagertzen ari dira, horrelakoek duten estimazioarengatik, eta familiakoek behin eta berriz azaldu dute euren kezka.

**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
 **77 05 65**

**mokasin**  
**Zapatak eta osagarriak**  
 Kontzeziño, 6  
 Tfnoa: 76 06 78  
 ARRASATE

**K** **abia** **altzariak**  
 Gipuzkoako Etorbidea, 28  
 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



# G

arai bateko neska gazteen dotorezia erakusten digu erretratu honek. Mondragoeko "eleganteak" zirela esan digu norbaitek, eta ez zuen arrazoirik falta. Monterron parkean ateratakoa da argazkia, eta kontutan izan behar da orduan ez zegoela orain bezala edozeinentzat irekita.

Urteari buruz ez dago adostasunik. Erretratuak berak 1932 jartzen du atzekaldean, baina askoz lehenago izan behar zuela esan digu neska hauek ezagutzen zituen batek.

Zutik daudenak, ezkerretik hasita, **Kostantzi Ugalde**, Donostian bizi eta

bertan hil zena. Alboan **Isabel Ziardegi** eta azkena **Kandida Otadui**, Etxetxokoa.

Bankuan eserita daudenak, ezkerrekoa **Merzedes Letona** eta alboan bere ahizpa, **Joxepa Letona**. Hirugarrena **Benedikta Ezkurra**.



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
Iarruzko artikulak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

## EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24  
ARRASATE  
TFNOA: 79 19 71



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- Eskoriatzan etxebizitza batean logela bat alokatzen da. Dei egin asteburutan 64 34 14 tfnora.
- Pisua osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten, dei egin goizez 79 11 19 tfnora.
- Aretxabaletan garajea salgai Murubide plaza. Tfnoa: 79 29 19.
- Guztiz jantzita dagoen ilepaindegia salgai. Tfnoa: 79 67 12.
- Pisua osatzeko pertsona behar da Erguinen. Tfnoa: 79 71 16.
- Etxebizitza salgai Olarte kalean. Tfnoa: (947) 27 01 00.

**Lana**

- Ingeleseko klase partikularrak behar dira. Tfnoa: 79 72 92.
- Umeak zainduko nituzke. Dei egin 79 60 16 tfnora.
- OHOKo klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 60 16.
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- Furgonetadun mutila lan egiteko gertu. Tfnoa: 77 04 87. Arratsaldetan.

• Emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.

• OHOKo klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 71 05. Miren.

• Bi neska gertu gaude etxeak, atarteak edo bulegoak garbitzeko. Tfnoak: 79 82 18 Mari Jose edo 76 06 79 Maribi.

• 30 urteko emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo edozein lan egiteko gertu. Tfnoa: 77 06 92.

• Alemana hutsetik hasita ikasi nahi nuke. Norbait erakusteko prest balego, deitu dezala ilunkaratan 79 41 94 tfnora. Miriam.

• Klase partikularrak ematen dira urte osoan. Talde txikiak. Pertsonal espezializatuak. Dei egin 5etatik 7etara 79 93 03 tfnora.

• Esperientziadun neskak pertsona nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 72 92.

• Esperientziadun txoferra C1, C2 eta D karne- tekin lan egiteko prest. Dei egin 79 60 16 tfnora. Pello.

• Zure etxea txukuntzen lagunduko dizut. Gauzak zintzilikatu, apalak edo tendereteak jarri, kurtinen rielak jarri... edo konponketa txikiak: elektrogailuetan, altzarietan... Kontsultetarako dei egin 79 80 25 tfnora.

• OHOKo klase partikularrak emango nituzke arratsaldeko 7etatik aurrera. Informazioa: 79 52 15 tfnoan.

• Edozein lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 52. Anton.

**Salerosketak**

- Salgai: karameluentzako 10 pote handi, izozkien- tzako kamara eta estreinatu barik dagoen labe bat (Salvat markakoa). Tfnoak: 77 00 91 eta 79 23 58.
- Citroën AX salgai. SS-AG. Dei egin 79 82 10 edo gauzez 76 35 50 tfnora.
- Zibro Caming RCA-66 berogailu japoniarra salgai. 45.000 PTA. Tfnoa: 79 97 87.
- Cega Master System kontsolako bi joku salgai 10.000 PTAtan. Tfnoa: 79 82 13. Aritz.
- Game boy + Tetris + Double dragon 2 salgai. Prezioa 10.000 PTA. Dei egin 79 11 96 tfnora 13etatik 14etara. Gorka.
- Spectrum ordenadorea salgai 18.000 PTAtan. Tfnoa: 79 93 91.

**Denetarik**

- Neska batzuk Aretxabaletan buzoneoa edo antzeko zerbait egiteko prest. Tfnoa: 79 04 94. Nagore.
- Eraman alde, nahi duenak eraman ditzake Fagor markako berogailu bi eta aspiradore elektriko txiki bat oraindik ibiltzeko beste. Tfnoa: 79 05 91.
- Emakumezkoen Seiko markako erlojua galdu zait azokatik parrokiarako bidean. Topatu bazu dei egin 79 57 58 tfnora. Saria jasoko duzu.

**Aste Gazte**

**Ikastaroak**

- 3. Adinaren Monitore ikastaroa. Hezkide eskolak antolatuta. Izena emateko epea: abenduaren 4ra arte.
- Espresio dramatikotik antzerki sorkuntzarako has- tapeneko ikastaro trinkoa. Abenduak 5-6. Ordizian. Ramon Albisturren eskutik (BAI-elkartekoa). Matriku- la 2000 PTA.

**Bekak**

- Euskal Herriko Uni- bertsitateko Emakumeari

Buruzko Ikerketarako Min- tegiak, ikerketa baterako deia egin du. Unibertsitate- ko lizentziatuei zuzendua. Dirulaguntza: milioi bat PTA. Epea: abenduak 23.

• 1993-94 ikasturtean Harvard-eko Unibertsita- tean graduosteko ikasketak eta ikerketak burutzeko be- kak. Epea: urtarrilak 15.

**HIESaren eguna**

- Abenduaren 1ean HIE- Saren eguna dela eta, Arra- sateko HIES Ekimenak

egitarau erakargarria pres- tatu du, eguna jai giroan os- patzeko. Arrasatear guztiak gonbidatzen dituzte.

**Lehiaketak**

• Arrasateko zenbait gazte-taldek Udalaren ko- laborazioaz antolatutako Komiki Lehiaketetan parte hartzeko epea datorren as- telehenean (hilak 30) amai- tzen da.

• Gabonetako postalen lehiaketa. Sondikako Uda- lak antolatuta. 4 adin maila. Sari interesgarriak. Epea: urtarrilak 7.

**"Gaztea nintzela bsterenganduk ezberdin ikusten nuen neure burua. Ustez kultura handikoa nintzen. 'Ezberdina naiz' pentsatzen nuen. Orain badakit hori ez egia ez dena. Orain badakit besteak bezalakoa naizena. Kultura berriz bat besterik ez da. Hori deskubritzeak aldaketa sakona eragin dit".**

KEVIN AYERS  
"STILL LIFE WITH GUITAR"

**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**

BERTSOAK

ZER NAHIAGO?

Alvaro Pereda

Kabia aitzari dendakoa



- **Muebleak egiteko egur mota bat?** Intxaurra, noblea eta biguna delako.
- **Apaingarririk politena?** Niretzat lora sorta, baina naturalak.
- **Ohe haundienaren neurriak?** 1.80, "birkixak" deitzen dena. Baina oso gutxi saltzen da.
- **Egongelan larruzko ala telazko sofak?** Oso zaila da esatea. Baina kolore beroak dituen telazkoa aukeratuko nuke.
- **Zenbat balio du egongela garestienak?** Miloia inguru. Oso garestiak dira eta oso jende gutxik erosten ditu.
- **Mahai borobilak ala laukiak?** Segun ze tokitan jartzeko. Gustatu, boribilak dira politagoak niretzat.
- **Hormak paperarekin ala barik?** Gehienak paperarekin daude baina paper gabekoak gehiago gustatzen zaizkit.
- **Gizonak ala emakumeak etortzen dira erostera?** Emakumeak, baina ez bakarrik, normalean lagunekin edo alabaren batekin.
- **Lorak ala kuadroa jarriko zenituzke logelan?** Kuadroa, serioagoa da eta.
- **Ze motatako estiloa gustatzen zaizu gehien?** Klasikoa, nahiz eta modan modernoa egon.
- **Nola garbitu daitezke altzariak?** Zapi garbi batekin, saltzen diren produktu horiek mantxak uzten dituzte eta.
- **Ekonomian dagoen krisia nabarmentzen da?** Puf! asko. Eta nire ustez altzari dendetan gehiago.
- **Bisitatu duzun toki politena?** Mendira joatea gustatzen zait eta Pirineotara ere askotan joaten naiz.
- **Ze tokitan egiten dituzu eguneroko erosketak?** Ez dut ideiarik ere. Emazteak egiten ditu, Eroskin uste dut.

Baserritarrak haserre

Baserritarrak haserre daude eta arrazoiz beteak kalte handiak egin baititu toki askotan basurdeak gaueko ilunez jotake lana egunez nonbait gordeak arto ta baba guztiak haustu ta landu zelai berdeak nik galdetzen dut non ote dauden hoiern gobernadoreak (Bis)

Basaurdea ez baldin bada azkonar ta azeriak arto pilo bat apurtu edo eramane oilo erdiak eta halare geldu uzteko esaten agintariak martxa honetan etorkizuna ilun du nekazariak bat edo batek hartu ezear behar diren neurriak (Bis)

Pastor elektrikoa jartzeko ere nago entzun barri hamar bat mila duro izango da joan ta pagau ta ekarri oraindik ere adarra jotzen ez al dago lotsagarri proposamen bat egingo diot hau esan dun tipo horri: hobe ez al da arto soloan bera "txorimalo" jarri (Bis)

IÑAKI PLAZOLA

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



DANKAR'T

Estetika eta  
Ileapaintzaile Eskola  
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52  
EIBAR

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARRASATE  
PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

# Arantxa Uriarte

## Kantatzea hobby Gorosarrin

Azken bederatzi urteotan Gorosarriko kantorea izan da Arantxa. Ordutik hainbat kontzertutan hartu du parte, Mozart, Vivaldi eta beste hainbat konpositoren abestiak kantatuz.

— Erantzukizun handia duzu Gorosarrin?

— Bai, momentu honetan solista soprano naiz, eta entsaiatzeko denbora falta dela eta, lana oso gogorra da. Aurkeztu dugun azken obran, "Misa de Coronación de Mozart" izenekoan, hasieratik bukaeraraino solista bezala kantatu dut. Aurretik orkestarekin, laukotearekin eta baita bakarrik ere, ordu asko sartu behar izan dut, baina ez nahi izan ditudan guztiak. Lan orduetatik kanpo entsaiatzen dugu, astebukaeretan eta iluntzetan. Hala ere, kantatzea hobby-a da niretzat, gustatzen zaidalako egiten dut.

— Arrasateko orkestarekin obra asko egin dituzue?

— Guretzat oso inportantea izan da Arrasaten orkesta bat izatea. Gorosarriri eginiko omenaldian ere, Juanito Arzamendik lan bikaina egin zuen. Udalaitzi buruzko obra bat ere egin genuen eurekin eta Vival-



diren "Gloria" ere kantatu genuen eta zinta grabatzeko aukera ere izan genuen.

— Orokorrean ze motatako kantak abesten dituzue?

— Polifonian batez ere kanta asko abesten dugu. Hauetan gutxitan kantatu dut solista, gehienak koruak kantatzeko abestiak izaten dira eta. Folkloreko beste kanta batzuk ere egin ditugu baina horiekin ez gara hainbeste identifikatzen.

Euskaldunak gara eta kanta horiek sentitzen ditugulako kantatzen ditugu.

— Zer dela eta egon zineten Iparraldean?

— "Kultur Bideetan" izeneko ekintzen barruan, koru txiki bat nahi zuten Iparraldean emanaldi bat

eskaintzeko eta nahiz eta 40 kantari inguru izan, 12 eta zuzendaria Ligi izeneko herrian egon ginen. Abenduaren 20an ere, Iparraldeko Lapurdi aldean, beste emanaldi bat eskaini genuen.

— Urtean zehar toki askotan kantatzen duzue?

— Bai, aurren batez ere ezkontza askotan abestu dugu, martxoan hasi eta urrian bukatu, eta ia larunbatero abestu dugu. Baina horretaz gain, beti dugu beste zerbait; urtean zeharreko emanaldiak, kontzertuak eta abar.

— Zure ustez, zer ezaugarri du Gorosarrrik?

— Gure artean dugun konfidantza aipatuko nuke batez ere. Gure artean hain ondo konpontzen gara, kantatzeko orduan ere konpenetratioa oso handia da. Akatsak denon artean komentatzen ditugu eta horregatik ez pentsa inor haserretzen denik. Ikastea eta kantatzeko modua hobetzeko egin daitekeen guztia, esku zabalez hartzen dugu. Horregatik ere oso aldagarriak eta moldeagarriak gara, zerbait txarto iriteten badu, berehala harrapatzen dugu zer egin eta entsaiatuz, erraz perfezionatzen dugu.

### ◆ Komiki lehiaketa

Drogomenpekotasuna eta Gazteria Zerbitzuek, Udalaren laguntzarekin, komiki lehiaketa antolatu dute. "Aspertasunaren kontra, akzioa" lelopean, interesatuta dauden guztiak euren lanak aurkez ditzakete, kopuru aldetik mugarik gabe. Neurria DIN A-4 edo DIN A-3 izango da. Datorren 30a baino lehen entregatu beharko dira lanak eta lehen saria irabazten duenak, 60.000 pezetako balioko kirol eta kultur produktuak eskuratuko ditu. Aurkeztuko diren lan guztiakin erakusketazabaltzea espero da.

### ◆ Gazteentzako I. skech lehiaketa


Euskadiko Kutzak, Gazteentzako I. Sketch lehiaketa antolatu du. Euskara zuzen erabili eta istorio bat ongien eszenifikatzen duten ikasleei saria eskaintzea da helburua eta baita ahalegin berezia egin duten irakasleei merezimen-oso aipamen berezia egitea. Edozein gertaera errealean imitazioa zein norberak asmatutakoa izan daiteke eta epaimahaiak honako puntu hauek hartuko ditu kontutan: ikasleek banakaka ez baina taldean eginiko lana, euskara batua zein literatur euskalkiaren erabilera, janzkerak eta helarazitako bideo zintaren kalitatea. Gutxienez 2 minutu eta gehienez 5 izan beharko ditu. Datorren urtarrilaren 14a baino lehen bidali beharko da Euskadiko Kutzara.

**ARRASATE PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**



**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

**SALBERRI**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



Azoka Plaza, 22.postua  
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE



## MUSIKA

**"Gloria" ia heavy batez gozatzeko hainbat pista**

Antton Vivaldi. XVIII.eko apaiza. 25 urte meza eman barik, sekula izan ez zuen "asma" baten ondorioz: 14 urte egin zituen Europan zehar girak eginez. Badirudi, "L'Ospitale della Pietta"ko neskaren batekin ere "ligatzen" zuela, bertako musika irakasle zen garaian. Veneziako moda musikalaren jaun eta jabe, zientoka konposatu zituen Kontzertuak, Operak etab. Testua eta musikaategiten bikaina.

Gloria. Izarren hautsa. Ez da meza baten atala, Mini-Oratorioa baizik: testu erlijioso baina Opera eta Kontzertuko teknika musikala. 1. atalean zeruko Aintzaz hitz egiten da, eta tronpetak entzun egingo dituzue. "Et in terra Pax" zailak, lurreakoa (armonia gogorak eta disonantzia ausartak) "Pake" lasai eta hunkigarri batekin nahasten du. Bakarkako eta fuga inspiratuen ondoren dator otowitzeko pasarte bakarra: "Dominus Deus Agnus Dei" (kontraltua-korua), herriak barka eskatzen du apal. Tristea eta hunkigarria. Nota bakar bat ere galdu ezindako beste pasarte batzuen ondoren, fuga ikaragarri batekin bukatzen da. Goikobaluk gogotik landu du. Entzun ezazue adimen irekiz, bere indarrarengatik ia heavya ere baden musika honekin gozatzuz.

**EUGENIO ETXEBESTE**

(Erredakzioan itzulita)



Concento Musical, espainiar eta poloniarrez osatutako taldea.

## Vivaldi parrokian, Goikobalu eta Concento Musicalekin

**Bihar** iluntzeko 8etatik aurrera, Goikobalu Abesbatzak eta Concento Musikal Orkestak, Kultur Bideetan ekitaldian, kontzertu berezia eskainiko dute parrokian. Bi zati izango ditu; lehenengoan "Las cuatro estaciones" lana eskainiko da eta bigarrenean, berriz, "Gloria", biak Antton Vivaldirenak.

Concento Musical taldea, Pro Musica abesbatza espainiarra eta Capella Bydgostiensis orkestra poloniarren elkarketaren ondorioa da. Taldea Germán Torrellasek zuzentzen du, eta azken bost urteetan


teknika eta arte aldetik aurrerakada nabarmena izan du. Normalean taldeak bakarrik lan egiten badu ere, ekintza berezietarako, talde espezializatuen laguntza izan du Concento Musicalek, musikari, kantari, bakarlarri etab. Biharko kontzertuan, esate baterako, Patricia Paz eta Isabel Alvarez sopranoak eta Elena Perez Herrero mezzoa izango dituzte laguntzai-le.

Azken bost urteetan, Concento Musicalek jaialdi eta

kontzertu askotan hartu du parte, Estatuan eta Europan zehar, baita konposatzaile ugariaren lanak eskaini ere.

Goikobalu berriz, Arrasateko abesbatza eta oso ezaguna gainera. 1989. urtean sortu zen eta ordutik makina bat kontzertu eskaini ditu, baita lehiaketaren bat edo beste irabazi ere, atzerrian ere, izan da eta beharbada konpromezurik serioena Donostiako

Kultur Musikan izango du. Gaur egun 90 lagunek osatzen dute eta Ignacio Ruiz de Alegria donostiarrak zuzentzen du.



comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-  
JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

PEUGEOT - TALBOT  
Salmenta eta  
zerbitzua

IBABE  
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

· AIPUA ·

*“Gerra gai serioegia da militarren eskuetan uzteko”*

*George Clemenceau*

· JEROGLIFIKOA ·



Nola nahi dugu natura?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5		6
7					8	
9				10		
11			12			
13		14		15		
16		17		18		19
20						

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Getariako itsasgizonaren kalea. 7. Sega. 8. Arabako indar politikoa. 9. Ilean ondak egin. 11. (Ald.) Eusko Alkartasun. 12. Eguneroko janaria. 13. (Ald.) Errepikatuz lelo. 15. Iparretarrak. 16. Atzerritar. 20. Laneguna.

**Bertikalak** 1. Nolanahi. 2. Erreminta. 3. Lagun. 4. Kaiku. 5. Baliogabe. 6. Apala. 8. Kanpora. 10. Gertatu. 14. Sebastian, atleta britaniarra. 17. *Kateako* kontsonanteak. 18. *Argiako* kontsonanteak. 19. Jainko egiptiarra.

· HOROSKOPOA ·

**Aries** Ile horiekin “Goku” ematen duzu. Ileapaindegiak zabalik daude!

**Taurus** Mutil ilehori bat zozketatzen da hilaren 14ean Arrasaten. Aprobetxatu!

**Gemini** Ikastolatik irtetzeko gogo bizia daukazun arren, ez da grebarik egongo.

**Cancer** Fernando Amezketarra bezain gizaixoa baina tximista bezain azkarra zara.

**Leo** Apaizek baino hobeto dakizu sermoiak botatzen.

**Virgo** Bikotea bilatzeko zure aldetik ere jarri behar duzu zerbait.

**Libra** Bizar horrekin basajauna ematen duzu. Gero eta itsusiago zaude.


**Scorpio** Astroek diotenez aste hau duzu hileko onena

**Sagitaris** Lagunak altura handia ateratzen dizu. Takoidun zapatak jantzi behar?

**Capricorn** Horrela jarraituz gero izugarrizko nota onak aterako dituzu. Saiatu!

**Aquarius** Krisialdi ekonomikoa amaituko da noizpait. Etorriko dira garai hobeak.

**Piscis** Zure oinen gaztai usaia nere sudurretaraino heltzen da. Buag!



udako  
euskal  
unibertsitatea

**UEUren III. Arrasateko Ihardunaldiak**

Abenduak 1, asteartea  
Arratsaldeko 6etan  
Udaletxeko Pleno aretoan

**ARRASATEKO TOPONIMIA (edo IZEN-IZANaren sintonia)**


Hitzaldi honetan ARRASATEKO TOPONIMIA deituriko lana aurkeztuko da. Lan hori Arrasateko udalak 1990eko udazkenean emandako beka baten ondorioa da.

Hitzaldiaren hasieran toponimiaz eta honen balioaz zerbait esan ondoren, Arrasateko Leku-izenen bilketa-lana nola egin den azalduko da: helburuak, metodologia, normalizazioa, arazoak, etab.

Hizlaria: **JOSE LUIS ORMAETXEA**  
Gasteizko Irakaslego-Eskolako irakasle.

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeko laguntzaz

KAXINTTO BERGARAREN GOMENDIOA



Laneko zortzi orduak, bestelako tentsioak...gorputza errelajatzeko zerbait behar dela esaten du Kaxinttok. Zerbait egin behar horretan, berak tailagintza gomendatuko luke. "Erremintak ezagutuz gero, esku ona ere ez da behar. Idazten ere, kaligrafia eginez ikasten da, eta egurra lantzea ere ez da zaila. Kendu bai, kendu erraz egiten da, berritzea da zaila, hortxe dago kokxa". Baina eskuartean erabilitako egur pusketari zerbaiten itxura hartzen zaionean, "orduan bai gustorra!".

PROGRAMAZIOA



28 Larunbata

4.00 Tertulixan  
4.30 ATBketan

29 Igandea

8.00 ATB PUB  
8.30 Monterock  
9.00 Mondragol

30 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Mondra Sport  
10.00 Asteko Zinea:  
Robin Hood.

1 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Larrugorritan  
10.00 Asteko Zinea:  
Robin Hood.

2 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Pareak jokuan  
10.00 Asteko Zinea:  
Robin Hood.


3 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 ATBketan  
10.00 Asteko Zinea:  
Robin Hood.

4 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me  
7.30 Dokumentala  
8.8.30.9 Berriak  
9.30 Monterock  
10.00 Asteko Zinea:  
Robin Hood.

KOMIKIA



SOLUZIOAK


JEROLIFIKOA  
Garbia.  
Ra.  
10. Agitu. 14. Coe. 17. Ki. 18. Rg. 19.  
3. Kide. 5. Nulo. 6. Lana. 8. Urtkan.  
Bertikalak 1. Edonola. 2. Lanabes.  
teguna.  
13. Ob. 15. IK. 16. Lekortar. 20. As-  
UA. 9. Ondulatu. 11. Nae. 12. Oga.  
Horizontalak 1. Elkano. 7. Daitu. 8.  
GURUTZEGRAMA

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

M  
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABAETA  
Tfnoa: 79 08 07

Elektroinjekzio  
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

**NAROKI**  
Urrezko bitxiak

**NAROKI**  
Opariak, Jostailuak, Liburuak,  
Paperdegia  
Erdiko kale, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 47

Gipuzkoa:  
bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**



kutxa

gipuzkoa  
donostia kutxa

caja gipuzkoa  
san sebastián